

# B

BARREN



**Puntako pilotaria,  
Roke Etxabe**

# ZEZEN-BIDE



## AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** teoria ikasteko gela berria!



### ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

### LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Kreditutzarekin ordaintzeko erraztasunak

# KOLTXOI-DENDA TEXTIL HOGAR - LAGUNAK

Koltxoi bat erosteagatik edredoi nordiko bat oparitzen dizugu.

(eskaintza ezin da metatu eta 2008-11-01etik 2009-01-06ra arteko balioa du)

**ESKAINZA BIKAINAK!  
KOLTXOIEK %20ra ARTEKO  
DESKONTUAK**



San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR  
24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe  
[www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



## Badatoz Gabonak

Jai, kanpuan ilun, eurixa, etxian umiak zarata batian, helduok tertulixarik egin ezinda, gure amaren pitxiak arrisku bizixan... Hori ikusitta, umiak hartu eta pasia urtetzia pentsatu dot, kalera. Umiak pozik, litxarrerixen paradisura bisita egittia baino ez baitaue buruan.

Haraxe eraman naue azkar asko aingerutxuak. Establezimendua bete-bete eginda ikusitta, Klubaren Eguna edo holakoren bat izan bihar dau. Ikustekua da neska-mutikuak nola ezagutzen daben litxarrerixen aukera zabala, kezkatzekua nolako irrikaz irensten dituen, lurra kolore anitzeko papertxoak jositta lagata.

Ondoren, haura amaittu zalakuan, hara nun sartu nauen motorrez, 1 formula kotxez, trenez, espaziountziz eta ez dakitt nik nolako ontziz betetako denda batera. Begira-begira geratu dira eurentzat 25.a izango litzaken kotxetzar baten aurrian, batere ilusiorik gabe, erosi bezain laster etxian pilotuta daukezenak bezela baztartuta lagatzeko. Edukitzia baita hemen kontua, daukaguna baloratzia baino askoz ere garrantzitsua-gua.

Kontsumo gizarte zoro honen biktima dira umiak gaur egun. Eta bestioak ez ala? Helduok ere antzekua egitten dogu gure ohiko, eta batik bat Gabonetako, jatordu, ospakizun, opari eta abarretan. Izan ere, holako

egoerak ez dira Gabonetakuak bakarrik, begi-bistakua da hori, baina Gabonetan bokoiztu, hiru-koiztu, lau-koiztu... egitten dira.

Edukiko dabe gauza onik ere egun hórrek, edukiko dabe... Umien ilusua aittatzen dit lagun batek. Ze ilusio? Gaboneta-ko gure jokaeriakin trans-mititzen dieguna?

Eta hori dana erlijuiaren izenian, nahiz eta erlijuiak hain zuzen kontrakua aldarrikatzen daben...

Horregatik diot, nik neuk nahixago dagoeneko urtarri-laren 12xa balitz.

Jose Kruz Sasiain



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitze gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

.....  
**"Kontsumo gizarte zoro honen biktima dira umiak.**

**Eta bestioak ez, ala?"**

## MIKEL LABOA AKORDUAN

**Hasier Etxeberria,  
 Jasone Osoro eta  
 Ainhoa Lendinezek  
 musikari euskaldunari  
 buruz idatzi dute**



**Egin  
 klik  
 eta  
 ikusiko  
 duzu**

**www.elgoiBARREN.net**



# ELGOIBARTIK MIAMIRA

ROKE ETXABE

**E**lgoibarren zesta-punta ez da tradizioa, baina Roke Etxabek mundu zabaleko frontoi mordoxkatan jokatu izan du bere ibilbide profesionalean. Bera pilotari zen sasoiaren frontoiak bete-beteta egoten ziren Euskal Herrian, Filipinasen edo Estatu Batuetan.

Oier Narbaiza



Behean, eskumako aldean, Roke motorrari eusten. Hemeretzi lagun eta txakurtxoarekin motorrean ibiltzea lortu zuten. (Mallorca, 1957)



## Zestoarekin sagarrak botatzen (Elgoibar, 1949)

Mutil koskorra zenean, Palazio baserriko Roke Etxabek ez zuen imajinatu ere egiten Ameriketara pilotari izango zenik. Umetan zesta-punta ezagutu ere ez zuen egiten. Seguruenik, Etxebarriako familiaren eraginez ekingo zion jokatzeari. “Nik ez nekien zesta zer zen eta gure amak ekarri zuen bat”, dio Rokek.

Oraindik gogoratzen du hamar bat urterekin zesta hartu zuen lehen aldia. Oilo-larrua sentitu zuen: “Sagar bat hartu nuen, lotu nuen zestoa abarken sokarekin eta *aiba dios!*”. Ordura arte ibilia zen eskuz jokatzen. Ordutik aurrera, Plaza Handian hasi zen zestoarekin: Aia-*San Migeleko Arakistain*, Intxausti harakina eta beste batzuk elkartzen ziren goizeko seiretan. Pilota ibaira sarri jausten zitzairen eta haren atzetik sartzen ziren, harrapatu nahian.

## Unibertsitatean (Markina, 1951-1956)

Sekulako afizioa hartu zuenez, 11-12 urterekin *Pilota-aren Unibertsitate*ra joateari ekin zion, Markinara. Astean hirutan hartzen zuen Esperanza autobusa. Markina inguruko ez izatean, irakaslerik ere ez zeukan eta bere kabuz ikasi zuen teknika. 45 minutuan kantxa erabili ondoren, dutxa hotza hartu eta etxera. “Hasi zaila izaten da”, gogoratzen du Rokek.

*Unibertsitatean* nabarmentzen ziren pilotariak kanpora joaten ziren. Roke Etxabek ere mundu zabalerako bidea hartzea lortu zuen. Izan ere, sasoi hartan mundu osoan jokatzen zen zesta-puntan: Espainian, Shanghain, Filipinetan, Estatu Batuetan, Perun, Argentinan, Kuban... Bartzelonan, esaterako, hamabi frontoi egon izan ziren martxan.



Paul Newman pilotari artean. Roke, aktorearen azpian. (Connecticut, 1978)

### Debuta (Bartzelona, 1956)

Rokeren Debuta Bartzelonan izan zen, Colon frontoian. Sei hilabetean jokatu zuen han, bizimodu apala eginez: hilean 1.500 pezeta irabazten zituen eta 1.300 etxeko ugazabari ordaindu behar zizkion. Zestak ere berak ordaindu behar zituen.

### Soldadutza (Mallorca, 1957-1958)

Rokeren ibilbide profesionaleko unerik gogorrena Mallorcakoa izan zen. Boluntario

egin zuen soldadutza, destinoa aukeratu eta pilotan jarraitu ahal izateko. Hogei hilabeteko soldadutza luzea baino luzeagoa egin zitzaion eta beltzak ikusi zituen.

### Jornal ona (Manila, 1959-1960)

Ordura arte diru gutxi irabazten bazuen ere, Manilako frontoian ondo ordaintzen zioten. Hogei hilabete egin zituen. Frontoia bete-beteta egoten zen Filipinetako hiriburuan. Jendeak bi-hiru kiniela ikusi eta alde egiten

zuen; gero, beste batzuk sartzen ziren, txandaka. Diru asko zegoen jokoan eta enpresak ondo irabazten zuen.

Filipinarren ohiturak erabat ezberdinak izan arren, Rokek eta beste pilotariak euren bizimodua egiten zuten. "Arroz asko jaten zuten, han pobrezia handia zen-eta". Aberatsek sei-zazpi neskame izaten zituztela gogoratzen du eta bero handia egiten zuela. "Baina ondo pasatu genuen", dio.



Arthur Miller (Marilyn Monroeren senar ohia) idazlearekin berbetan. Roke ezkerrean.



Biarritzeko podiumean.

### Izarren artean (Miami, 1960-1968)

Ilusio ikaragarriarekin zapaldu zituen Estatu Batuak lehen aldiz. Pilotaririk onenekin jokatu behar zuen Miami Jai Alain. "Real Madrid edo Bartzelonan sartzea bezala izan zen", azaldu du Rokek. Benetako izartzat zituen jendeak eta oso ezagunak ziren. "Benetan, futbol jokalarien modukoak ginen", dio. "Frontoiak oso handiak dira eta sekulako montajea dago. Diru jokorako prestatuta egoten dira", azaldu du. Berak jokatzeko zuten frontoiak 5.600 jarleku bazituen ere, zapatueta pasilloak-eta bete-beteta egoten ziren: 7.000 pertsona, denak kantxara begira. Zapatu gauetan 1,2 milioi dolar jokatzeko ziren.

Partiden sistema hemen ez bezalakoa izaten da Estatu Batuetan: zortzi bikote elkarren aurkako lehia, eta partida motzak, zazpi tantora. Rokeren sasoiari behintzat goizez eta arratsaldez funtzio bana izaten zen. Koadroan 40-50 jokalarik egoten ziren.

Egunero jokatzeko zuten, eta astean egun bat atsedenerako hartzen zuten. Entrenatzeko astirik ere ez zuten. Beharbada zesto berria eskuratzean probatu egiten zuten, baina bestela jokoa bera zen entrenamendua.

Amestutako bizimodua, baina, uste baino gogorragoa zen. Azken batean, enpresak emaitza onak exigitzen zizkien pilotariei. Bestela, kalera. "Nazkagarria da, jokatzeko, kirol aldetik begiratuta. Suerte kontua da, *ratxa* ona izatea. Presio itzela sartzen dizute: irabazi egin behar duzu. Den-dena apuntatzen dute, gainera. Huts egiten baduzu, aurpegiatu egiten dizute. On-ona zarenean marjina daukazu, baina erdipurdikoa bazara, maleta hartu".

### Marrazkidun alkandorak (Euskal Herria, 1960-1968)

Urtean bost hilabete egiten zituen Miamin: abenduaren 25etik maiatz hasierara arte. Gainerako hilabeteak hemen ematen zituen, frontoirik frontoi. Horixe izan zen bere ibilbidearen momenturik onena. Euskal Herriko publikoa Ameriketako pilotarien zain egoten zen, handik noiz etorriko. Hemen ere frontoiak betetzen zituzten: Markina, Durango, Gernika, Fadura, Biarritz, Donibane Garazi, Maule...

Miamin ondo irabazten zuten orduan. Hala ere, dirutza ikaragarri ez zuten jasotzen, puntakoak izan arren. Hemengo kazetarietako pilotariei buruzko handikeriak kontatzen zituzten eta jendeak izarrei bezala begiratzen zien.

Gainera, Ameriketako moda oso ikusgarria zen hemen. "Alkandora bat 1,50 dolar ordaindu, polita, elegantea. Marrazki bat edukitzen zuen, palmera bat edo. Hemen horrelakorik ez zegoen", dio. Eta jende guztia begira-begira gelditzen zitzaion. Zeresan handia ematen zuten.



John Travoltarekin. Rokek 8 zenbakia darama.

### Pilotariak kalera (Miami, 1968)

Miami Jai Alaiko pilotarietako elkartea eta eskaera batzuk egin zituzten 1968an. "Elkartea egin nahi izan genuen, erretiroa lortzeko", azaldu du. Enpresak ez zuten negoziatu eta 400 pilotari kalean laga zituen. "Gure ordean beste batzuk hartu zituzten, tailerlean lanean zeudenak", dio. Inork ez zituen babestu: ez kazetarietako, ez federazioetako. "Imaginatuta Bartzelona futbol taldeko jokalarik guztiak kalera bidaltzen dituztela eta Hospitaletetakoak sartzen dituztela", azaldu du. Rokeren iritziz, pilotarietako ez zuten jakin elkarren artean ondo antolatzen eta ganorazko estrategia aurrera ateratzen.

### Berriro Katalunian (Bartzelona, 1969-1976)

Miamitik bueltan, Bartzelonako Palas frontoian jokatzeko lortu zuten. Era berean, Euskal Herriko frontoietan ere jardun zuten.

### Estatu Batuetara atzera berriz (Connecticut, 1976-1984)

Frontoi handi eta ikusgarria zabaldu zuten Bridgeporten, Connecticuteko estatuan, eta han lortu zuten jokatzeko. Emaztearekin eta bi seme-alabarekin joan zen. Bere ibilbideko profesionalen azken partidak izan ziren. Ahal zuten bitartean eutsi zion, 45 urterekin erretiratu zen-eta.

### Erretiroa

Masaje kontuak beti gustatu izan zaizkio eta pilota lagatukoan CD Elgoibarren ia hogeitun urtean jardun du masajista. Orain bizikletan ibiltzen da noizik behin, eta ortuan eta terrenoan ere ibiltzen da lanean. Dena dela, San Bartolomeetan zezenak harrapatu zuen eta sekulako kolpea hartu zuen. Mendaroko ospitalean esnatu zen eta ez zuten ezer gogoratzen. Kolpearen ondorioz usaimena eta dastamena galdu ditu. "Kezkatuta nago", dio, bere onera itzultzeko esperantzaz.



**Pedro Muguruzan egiten ari diren obrak ez daude ondo seinalizatuta:** “Madalatik Herriko Antzokira bitartean sekulako zuloa egin dute lurrean, eta ez dago ondo seinalizatuta. Orain barandak jarri dituzte jendea ez pasatzeko, baina, horretarako, gizon bat zulora erori behar izan da. Hasierako egunetan ez zegoen pasoa ondo itxita, eta ilunpetan, presaka kioskora nindoala, zulora erori nintzen. Ez zen ikusten lurrean zegoen zuloa. Metro bat gutxienez bazeukan zuloak. Inguruko jendeak lagundu zidan zulotik irteten eta ospitale-eraman behar izan ninduten. Sekulako kolpea hartu nuen. Horrelako lan arriskutsuak hobeto seinalizatu eta itxi behar direla iruditzen zait”.



**Sigmako zubitik errepedera irtetea oso zaila da:** “Badaude ordu batzuk Sigmako zubitik irtetea ia ezinezkoa dena. Jendea lanera sartu edo lanetik irteteko orduetan, sekulako ilara luzeak sortzen dira Sigmako zubian. Arratsalde batean hamar minutu pasa egin nituen zain! Udaltzainek ez dakit zein kriterio erabiltzen duten, baina askotan ez dira egoten, edo hamar minutu egon eta gero joan egiten dira. Herriko sarrera-irteera garrantzitsua da, eta zaindu egin behar da”.

**Mintxetako aldageletan hotz egiten du:** “Negua iritsi da, eta temperatura asko jaitsi da. Mintxetako erabiltzailea naiz, gustura joaten naiz bertara kirola egitera, eta Elgoibarren dagoen kirol eskaintza txalotzekoa da. Ia ordu guztietan dago ikastaroak egiteko aukera, baina aldageletan hotz handia egiten du. Izerditu ondoren, hoztu egiten da gorputza, eta berotasuna behar du. Eskertuko genuke berogailu hobek jartzea aldageletan”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:  
[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) 943-74 41 12

## ESKERTZA

# ANGELA BADIOLA SALEGI



*Izan zinalako, gara.  
 Juan zara amama.  
 Juan zara, zure onena, guri emanda.  
 Eta horregaittik, ezautu zaittugulako,  
 eman diguzulako aukeria, zu ezautzeko,  
 esateko dakagu,  
 zu ezautu izana,  
 plazer bat izan dala.  
 Plazer handi bat.  
 Eskerrik asko amama.*



*2008ko azaroaren 29an hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

**Nafarroako euskarazko hedabideen adierazpena, diru-laguntzen desblokeoaren aurrean**

Nafarroako Gobernuak partzialki desblokeatu berri du ekainaz geroztik blokeatua zuen euskara hedabideetan sustatzeko diru-poltsa. Xede horretarako gordeta zituen 310.000 eurotatik, 240.000 banatuko ditu zehazki.

Nafarroan euskaraz dihardugun hedabideok, neurriak zuzenean eragiten digun heinean, ondoko hau adierazi nahi diogu Nafarroako Gobernuari eta gizar-teari, oro har:

Σ Lehenengo eta behin, aitortu eta eskertu nahi dugu Hezkuntza Sailak eta Euskarabideak egin duten ahalegina, partzialki bada ere, poltsa desblokeatzea ekarri duena, eta Xabier Azanzak zein Hezkuntza Sailburu Carlos Perez-Nievasek azken asteotan gurekin biltzeko eta gure egoeraren berri jasotzeko azaldu duten prestutasuna.

Σ Ahalegin hori eskertuta eta aitortuta ere, argi eta garbi utzi nahi dugu aurrekontuan gordeta zegoen kopurua, eta, zer esanik ez, azkenean banatuko dena, nahikoa izatetik oso urrun dagoela. Ideia bat egiteko, 240.000 euroko poltsa horretatik, %65 ( 156.000 euro ) izango da euskara hutsezko hedabideentzako, hau da, euskaraz dihardugun hedabideon aurrekontu globalaren % 7,6 baino ez.

Σ Era berean, argi adierazi behar dugu aurten diru-laguntzekin gertatu dena erabat onartezina dela, eta ezin dela

errepikatu: urte hasieran diru-kopuru bat iragarri, hil batzuk geroago kopuru hori zerora murriztu, azkenean iragarritakoaren %77 banatzeko. Euskarazko hedabideon sektorean 30 medio ari gara (11 aldizkari, 6 irrati, 2 telebista 11 agerkari digital), 56 profesional guztira, Iruñerri, eta Iruñerriatik iparraldeko nafarrei zerbitzua emateko. Haietako batek ere merezi ez duen errespetu falta handia da haien guztien egunerokotasuna kolokan jartzea, jarri izan den moduan.

Σ Euskararen Legeak euskara sustatzeko agindu argia ematen dio Gobernuari. Hedabideon kasuan, sustapen hori laguntza egonkor eta nahikoen bidez gauzatu behar da, gure jarduera laisatasun eta duintasun baldintza minimoetan garatu ahal izateko. Gogoratu beharra dago euskarazko aldizkari, irrati eta telebistok, txikiak izanik ere, ekarpen handia egiten diegula bai euskararen normalizazioari, inguruko berriak euskara hutsez landuz herritarrei informazioa euskaraz jasotzeko ohitura sortzen dugulako, eta bai gure inguruan bizi direnei ere, hedabide handiagotetan nekez agertzen diren berriak hurbiltasunez jasotzeko aukera ematen diegulako.

Σ Aurreko hori guztia, gure ustez, epe ertain-luzeko hitzarmen baten bidez baino ezin da lortu. Hitzarmen horrek argi jaso beharko luke zein den euskarazko hedabideon zeregina, zeregin hori duintasunez betetzeko zer behar duten, behar horietan zenbateko laguntza eman behar duen Gobernuak, eta la-

guntza hori jasotzeko nolako baldintzak bete behar ditugun hedabideok.

Σ Zentzu horretan, idatzi hau sinatu dugun hedabideok erabateko prestutasuna adierazi nahi diogu Gobernuari mahai baten inguruan eseri eta hitzarmen horren xehetasunen inguruan hitz egiten hasteko. Gure ustez, elkarlanean aritzea da ataka honetatik atera eta alde biotarako onargarria ez ezik onuragarria ere izan daitekeen akordio batera iristeko bide bakarra.

Iruñean, 2008ko abenduaren 2an

**Ttipi-ttapa, Xuka, Guaixe, Nabarrerria, Kotarro, Karrika, Xapo, Marmari, Mailope, Zorroka eta Pulunpe aldizkariak, Xorroxin, Beleixe, Karrape eta Esan-erran irratia, eta Ttipi-Ttapa eta Xalao telebistak, Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioa** ☪

# Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
 ☎ 943 74 41 12  
 Faxa: ☎ 943 74 37 04  
 E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04  
 E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:







Zuhaitz  
Gurrutxaga

Eguno-  
tan bukatu  
berri dut Pello  
Guerra idazlearen  
La espada de los  
vascones liburuaren ira-  
kurketa. Euskaldunon historiako

hainbat gertakariz ari da bertan. Horien artean, Kristo ondorengo 778. urtean Orreagan (Nafarroan) bizi izandako pasarte ospetsuaz jarduten du. Roldan handiaren aginpean zen Karlomagno-ren armada Pirinioak gurutzatzekotan zen, Zaragozatik Frantziara itzultzen ari zela. Aurrez Iruñeko harresia eraitsi zuten, eta, ordainetan, Altabizkarko igarobidean 1.000 baskoiz osaturiko armada txikia bildu zen frankoen armada boteretsua erasotzeko intentziorik. Arma kaxkarragoak zituzten baskoioek eta baita ehunka gizon gutxiago ere, baina Jaungoikoaren eta Mariaren babespean, lurraren abantailak profitatuz, fede handiz aurre egin zieten Roldanen gizona. Garaipen sinestezin bezain itzela lortu zuten. Era berean Karlomagnoaren gudarosteak jasandako porrot handi bakarra bideratu zuten.

### “Orreagan bezala, geuk ere garaipen historikoa lortu dugu”

Orain aste batzuk, Bidasoa ibaiertzeko lurretan bizi izan nuen aurrez aipatutako batailaren antzekoa. Ilusioa eta apaltasuna ziren eskuartearen geneuzkan arma bakarrak. Aurrean izana, izena eta nahi beste diru zeukan talde izugarria geneukan. Orain hamabi mende gure arbasoek Orreagan egin bezala, oraingoan guk geronek lortu genuen denbora luzez ahaztuko ez dugun garaipen historikoa. Ez zuten Baskoiek inperiorik sortu, ez eta guk munduko koparik irabazi ere. Txikiok beste zenbaitentzat balio gutxi duten arrakasta xumeok betetzen gaituzte pozez ordea. Ez dugu asko behar zoriontsu izateko, ezta Unai?



Unai  
Arrieta


Badut Bidasoa inguru horrekiko loturarik. Kanporaketa bertatik bertara ikusteko aukerarik izan ez banuen ere gertutik jarraitu nuen, Zuhaitz, burutu zenuten balentria. Denok mutu. Egitandi gogoangarriaren ondorengo orduetan munduari bira eman zion irudia, astro zuria egin zenion markaketa estu eta zorrotza. Hantxe ito zen astroa, baita izarren konstelazioa ere. Logikaren gainetik talde apalak, zuzi piztu bat bezain gartsu, zalanztati agertu zen talde galaktikoa mendean hartu zuen. Kirolaren barrunbeak eta gizakiaren argi-ilunak agerian.

### “Agian madrildarrak ez dira supergizonak, superheroiak”

Kirola barrutik bizi dugunok, Zuhaitz, badakigu porroten ajeak lehenbailehen gaintzea zeinen garrantzitsua den. Jakin badakigu baita ere, ordea, halako euforiez itsutzea zeinen kaltegarria izan litekeen. Inori meriturik kendu gabe, gertakariak erlatibizatu zale naiz, gertakariak bere kontestuan ulertu zale. Ziurrenik, Zuhaitz, zure taldeak, irabazteko presio ezaren aurrean, norbere baitako mugak gaintu zituen eta kanporaketa aurrera atera zezakeela sinestu zuen. Bestalde, komunikabideek ulertarazi nahi digutenari kontrajarririk, agian madrildarrak ez dira supergizonak, superheroiak (perfekzioaren ereduak), gainontzekook bezala badituzte beraien ahulaldiak. Uste osoa daukat, Zuhaitz, halako balentriek zerikusi zuzena dutela taldearen sasoiarekin, baina batik batik taldearen gogo-aldartearekin. Erraldoiak dira ala belaunikaturik, makurturik begiratzen diegu? Bejondeizula!



Elgoibarko Udala



# pellozabala

Frantziskotar mediatikoena da Pello Zabala. Arantzazun du egoitza, baina egunero euskaldunon etxean egoten da irrati zein telebistaz eguraldiaren berri ematen. Metereologo alde du ezagunena, baina musikan aditua ere bada fraidea, eta organoa jotzen hamabost urterekin ikasi zuen. Orain, bere irudia duen hidrografoa kaleratu dute: hezetasuna aztertzen duen tresna.

Edurne Burgaña

## “Metereologiarekin jakinminik ez dut eduki gaztetan”

**Ze eguraldi egingo du bihar, Pello? Zenbat aldiz galdetu ote dizute hori...**

Hori normalean agurra izaten da; edo txarra baldin badago... “Eguraldi hau noiz arte!” Normala da, baina. Hainbeste urte eguraldi kontutan, eta hori galdetzen ez baduzu, zer galdetuko duzu ba? **Eta orain benetan, zer eguraldi egingo du?**

Ba gaurkoaren antzekoa. Itsasaldeko hai-zea daukagu, hotza; fundamenturik gabea, baina elurra uzten duena. Asteburura begira, mendebala dator, baina ez hegoko epela, itsasaldeko umela baizik, eta tarteka egunean fronte bat ekarriko digu. Beraz, euria beriz; elurra izatekotan, goi samarrean.

**Arantzazu puntan ere, hotza egingo du ba?** Aspaldian bai. Zeropetik gradu bat, zero daukagu, eta bost bat zentimetro elur. Beraz, onena etxean egotea. Gazteagoak ginean irteten ginen, baina orain kalefazio ona

daukagu, eta etxe barruan hobeto badaezpada ere.

**Orain, zure irudia duen fraide bat atera dute, eguraldiaren iragarpenak egiteko.**

Iragarpenak baino, egia esan ez dago gailurik edo erremintarik, hemendik hamar minutura edo gerora zer egingo duen esan dezakeenik. Dauden guztiak dira momentuan zer egingo duen esaten dutenak. Kasu honetan, higrometro honek, airearen hezetasuna neurtzen du. Beraz, zer adierazten duen ikusita, gero zer egin dezakeen ikusi dezakegu. Lehendik ere, gure ama eta amamek bazekiten arropak uretan sartu eta urak hartuko zituela. Gauza bera pasatzen da ile rubioarekin. Beraz, ile hori motots bat erabiltzen da. 20-30 iletxorekin; umeltasunarekin oso sentisbleak dira, eta euria baldin badator hasi egiten dira eta fraileari eskua jaitsi; eta siku baldin badago, kizkurto eta eskua gora igo. Baina, noski, kontuan eduki behar da non

jartzen duzun, lekuaren arabera umeltasuna aldatu egiten delako.

### **Noiztik daukazu eguraldiaren iragarpenak egiteko zaletasuna?**

Metereologiarekin jakiminik ez dut eduki gaztetan. Fraide bizitzan nire afizioak euskara eta musika ziren. Eta musika mailan organoa jotzen hamabost urterekin ikasi nuen. Baina lehen fraide bat zegoen metereologian zaletua eta behatokia jarri zuen Arantzazun. Egunero hartzen zituen apunteak, eta hari laguntzen hasi nintzen. 1982 urtean, ETB eta Euskadi Irratia sortu zirenean, datuak eskatzen hasi ziren eta, beraz, egunero edukitzen genuen lana. Kontua da beste fraide hura hil egin zela, eta haren postuan jarraitu nuen nik.

### **Irratirako hasi zinen, beraz, metereologo lanetan...**

Musika saio bat egitea eskaini zidaten irratian, eta uda iritsi zenean, eguraldiaren berri ematea proposatu zidaten. Baietz esan eta halaxe egin nuen. Gero, uda amaitu zenean, udan jardun genuenon artean jarraitzea proposatu ziguten: kalkulak ateratzen hasi eta lau edo bost astean behin izango zen nire txanda, eta baietz esan nuen. Baina hasi eta gutxira deitu zidaten esanaz beste guztiek uko egin ziotela lanari. Hori entzunda, ezetz esatekotan egon nintzen, baina hobeto pentsatuta, Arantzazuren izena zabalduko zuela ikusita, onartu egin nuen. Horrela, irratia lotuta, metereologian sartzen joan nintzen.

### **Tenporai egiten diezu zuk kasu... fidagarriak dira ala?**

Tenporak ez dira oraingo kontuak: lehendik ere, baserritarrek batez ere, haizeari egiten zioten kasu eguraldiaren nondik norakoak aurreikusteko orduan. Gaur egun ere, baserritarrak badaki tomatea landatzeko orduan dagoen haizearen arabera, nolakoak aterako diren. Baina kalekoari inporta zaiona euri kontua da; ez haizea. Haizea, bizikletan ibil-

tzerakoan bakarrik inporta zaio askori.

### **Haizea bakarrik ez, ilargia ere asko begiratzten duzu...**

Ilargiak asko zehazten du zer eguraldi egingo duen. Urtean lau ilargi daude, eta lehenengo hiruak antzeko joera izaten dute, eta laugarrenak, kontrakoa. Ikustea besterik ez dago: apirillean izaten da bat, eta orduan euri mordo egiten du: urtean euri gehien egiten duen bigarren hilabetea da apirila, eta lehena, azaroa.

### **Negua aurreratu egin zaigula diote askok...**

Hotza egiten du bai, baina nik gogoan dut aurreko urte batean, Pilarika egunean elurra eduki genuela. Askotan gauzak erraz ahazten zaizkigu.

### **Frantziskotarra, meteorologoa, eta musika aditua zara, baina hiruretatik, zein gehien?**

Hiruak batera naiz ni. Momentuaren arabera bata edo bestea; baina hirurek batera osatzen naute.

### **Blog bat ere badaukazu.**

Berria egunkariaren bloga da, eta han ere, metereologiaz hitz egiten dut. Askok gara blogariak, eta tartean, neuk ere idatzi egiten dut. Eta idazteari lotuta, oraintxe daukat inprentan liburua: *Eguraldia beti airean* du izenburua. Gazteleraz idazteko eskatu zidaten, eta ezetz esan nuen, euskaraz idatziko nuela eta gero, nahi izanez gero, itzultzeko. Baina penatuta nago: oso gaizki itzuli dute, eta orain neu nabil zuzenketak egiten. Euskarazkoa eta gaztelerazkoa, biak batera kaleratzea nahiko genuke.

### **Gauza asko egiten dituzu zuk!**

Lo ondo eginez gero, denetarako astia egoten da. Baina egia da ni taldean baina bakarrik bizi naizela. Ez daukat familiarik gobernatzeko, eta etxean zerbait egiteko txanda dudanean, astirik ez badaukat, taldean laguntzen diogu elkarri. Gure etxea beti dago martxan: erletxearen modukoa da, beti lanean, eta beti besteentzako lanean egoten gara.

## Hainbat kontu

- **Maisua:** Frantziskotarra da eta Teologia eta Filosofia ikasketak egin zituen Arantzazun. Bertako seminarioan 24 urtez irakaskerak aritu zen, eta gehienbat musika eta euskara landu ditu. EHKME Euskal Herriko Klimatologia eta Metereologia fundazio-kidea da.

- **Blogaria:** *Mendiko Behatokitik* izeneko blogean, eguraldi iragarpen eta metereologia jakingarriak jorratzen ditu alde batetik. Bestetik, musikaren ingurukoak. Baina, bereziki, hango eta hemengo kontuek sortzen dizkioten burutazioak partekatzen ditu 2006ko urriaren 24tik duen blogean.

- **Idazlea:** *Naturaren mintzoa: Egunez egun, sasoiaren gurrpilean* (Alberdania, 2000) liburua 2000 urtean kaleratu zuen. Hurrengoan, handik sei urtera etorri zen: *Zeruan zer berri: Arantzazuko talaitik eguraldiari begira* (Alberdania, 2006). Hirugarrena inprentan dauka, gaztelerazko edizioa zuzentzeko zain, eta biak batera kaleratzeko asmoarekin. *Eguraldia beti airean* izenburua edukiko du.

- **Arantzazu:** Betidanik jakin du Pello Zabalak Arantzazun bizi nahi zuela. Urtebete egin zuen Bilbon bizi izaten, eta ez omen zitzaien batera gustatu: "Hura ez da niretzat: Bilbo, bilbotarrentzat". Arantzazuko lasaitasuna gauza ederra dela dio. Mendi bueltak ematea gustatzen zaio frantziskotarrari. Goizeko zazpitan, bere kideak kaperan biltzen diren bitartean, basilika aurreko zabalgunera irteten da Pello Zabala. Sasoi honetan txoriekin hitz egiten du, edo jolastu.

**Lehen, baserritarrek batez ere,  
haizeari egiten zioten kasu eguraldia aurreikusteko**

## Danobat Taldeak 50 milioi euroko eskaera bereganatu du trenbide sektoreko enpresa errusiar baten eskutik

Espainiako erreminta-makinaren sektorean inoiz izan den eskaera handiena da

**D**anobat Taldea Mondragon Korporazio barruan sartuta dago eta liderra da Espainiako erreminta-makinaren sektorean. Oraingo honetan, Danobatek 50 milioi eurotik gorako eskaera lortu du Errusiako merkantzia-bagoien lehen fabrikatzailea den TVSZ errusiar enpresaren eskutik. Espainiako erreminta-makinaren sektorean errekor historikoa jarri du kontratu honek. Eguaztenean eskaini zuten enpresako arduradunek prentsaurrekoa Ideko-IK4 zentro teknologikoan.



### Danobat Railway Systems

Trenbidearen sektoreari modu esklusibo eta espezializatuan erantzuteko helburuarekin, Danobat Taldeak Danobat Railway Systems ingeniaritza enpresa sortu du. Trenaren errodadura sistema osatzen duten pieza fabrikatu eta mantentzeko ekipamendu eta linea automatikoak garatu eta merkaturatzea da enpresa horren funtsezko jarduera. Horri esker, langile kualifikatuak gehitu dira, eta Bergaran 10.000m<sup>2</sup>ko azpiegitura berria jarriko da martxan. Trenbi-

dearena Danobat Taldearen negozio linea nagusietakoa da gaur egun.

### Danobat Taldea

Espainiako erreminta makinaren sektoreko liderra izateaz gain, Danobat Taldea sektoreko lehen hogeitaz fabrikatzaile europarren artean dago. Taldeak dituen produkturik aipagarrienak artezteko makinak, tornuak, fresaketa zentroak, mekanizazio zentroak, mekanizazio linea malguak, makina bereziak eta transferak dira. Taldean, guztira, 1.328 pertso-

nak dihardute lanean, eta horietatik 186 atzerriko ekoizpen lantegietan ari dira.

2009ko ekitaldiari begira, enpresaren eskaera zorroa aski ona dela aipatu zuen Rafael Barrenechea Mondragon Korporazioko lehendakariorde eta Danobat Taldeko zuzendari nagusiak. Krisi egoerari aurre egiteko, Danobat Taldeak dibertsifikatu egin ditu negozioak hazkunde handiko sektoreetarantz, esate baterako, energia eolikoaren sektorerara, aeronautikara eta trenbide sektorerara.

## Elgoibar1936 elkarteak txalotu egin du Udalak memoria historikoaren gainean onartutako akordioa



1936ko gerran lurperatutako gorpuak bilatzeko laguntza eskaintzea eta ikur frankistak kentzeko beharrezko neurriak hartzea onartu zituen Udalak azken Plenoan, eta Elgoibar1936 taldekoek txalotu egin dute erabaki hori. Taldeko kideek, gainera, euren laguntza eskaini diote Udalari, euren ustez, "lan handia baitago egiteko". Elkartekoek esandakoaren arabera, 15 guda-ri izengabe daude lurperaturik daude gure mendietan, 20 fusilaturen seni-deak, frentean hildako beste 13 lagunengorpuak eta kontzentrazio-esparruetan egondako 21 pertsona. Bestalde, Francok Elgoibarko ohorezko alkate izaten jarraitzen duela gogorarazi dute, "1949an hala izendatu zuten zerez geroztik". Udal artxiboa erabat zaharkitua dagoela esan dute, eta Salamanca artxiboek bertan egon beharko luketela gaineratu dute. Azkenik, ikur frankistak eta frankisten omenezko kaleak oraindik indarrean daudela kritikatu dute, eurek salaketa apirilean egin zuten arren.

## Lekua **San Antolin**



San Antolin auzoko bizilagunek lokal berria izango dute, Alastia-San Migel edo Azkue-San Roje auzoetan dauzkaten bezalaxe. Udalak trenbideko langileen txabola zena eskuratu du, eta orain auzokideek egokitu egin beharko dute. 80m<sup>2</sup>ko lokala da, eta hasieran sukaldea, jangela, biltegia, bulego bat eta komunak egingo dituzte. Orain dela hamar urte inguru egin zioten Udalarari eskatera, eta oraindik gaia erabat lotuta ez dagoen arren, lokalaren izaera juridikoa aztertzen hasi dira.

## Zenbakia **45.000 euro**

Elgoibarko Udalak 45.000 euro inguru erabili ditu Gabonetako argiak jartzeko. Udaleko arduradunek esandakoaren arabera, aurtengo aurrekontua iazkoaren oso antzerakoa izan da, eta argiak ere berberak dira. Herriko erdigunean jarri diren argiez gain, lau eszenografia irudikatuko dira Osasun Zentroaren aurrean, Leku Ederren, Urasandin eta Sigmako josteko makinaren gainean. Argiak asteburu honetan piztuko dituzte eta errege ondorenera arte egongo dira martxan.

## Irudia **Magosto Eguna**

Herritar mordoia hurbildu zen gaztaina erreen usainera Magosto Eguna ospatzera, joan zen zapatuan. Ehunka kilo gaztaina eta beste hainbeste ribeiro ardo banatu zituzten Galiza Etxekoek Nafarroa Plazan. Ohi duten legez, Galiziatik, Verin herritik, ekarri zituzten espresuki 350 kilo gaztaina. Bi eurotan lurrezko pitxarra erosi ondoren, gaztainak eta ardoa doan banatu zituzten. Giro hotzari aurre egiteko modu bikainak!



## **Antxustegi enpresan lagun bat kaleratu dute**

Antxustegi enpresan langile bat kaleratu dute azaroan, eta LAB sindikatuko arduradunek esandakoaren arabera, datozen hilabeteetan beste hiru langile kaleratzeko asmoa erakutsi du enpresak. Antxustegi eraikuntzari zuzenean lotuta dago, eta sektorearen krisialdiak zerikusi zuzena du. LABek emandako informazioaren arabera, Antxustegiko langileak erregulazioan sartzeko prest azaldu dira, baina enpresa ez zegoen horren alde. Egoera honen kontrako mobilizazioak izango dira datorren astean, LABek antolatuta.

## **Gurutze Gorriak bi kanpaina jarri ditu martxan**

Herritarren solidaritatea bultzatzeko asmoz, Gurutze Gorriak bi kanpaina abiatu ditu. Batetik, *Portal Solidarioa* izeneko proiektua daukagu, eta horren helburua etxe komunitateetan auzotasuna berreskuratzea da, hau da, bizilagunak elkarren artean laguntzeko prest daudela erakustea. Bestalde, *Komunitate Suspertzaileak* izeneko ekimenean hartuko du parte Gurutze Gorriak. Kasu honetan Gurutze Gorriko boluntario batek komunitateko behar sozialak atzemango ditu, eta erakundea irtenbidea ematen ahaleginduko da. Bestalde, jostailu bilketa egingo dute abenduaren 9tik 26ra bitartean. Jolasak Plaza Txikiko lokalera eraman daitezke.

## **Korrikaren laguntzaile**

AEK-k Korrikaren laguntzaile txartela egiteko aukera eskaintzen du. Txartelak Euskal Herriko hainbat komertziotan beharpenak izateko eskubidea ematen du; besteak beste, gure herriko 14 dendatan. Txartelak 12 euro balio du, eta AEK euskaltegiak Plaza Txikian duen egoitzan egin daitezke.

Agintariak ingurumena gutxiago kutsatzeko neurriak aztertzen ari dira.

## Zer iruditzen zaizu dendetan plastikozko poltsarik ez ematea?



**Vicente Estevez**  
63 urte, jubilatua

Gaizki, niretzako askoz erosoagoa da erosketak egitera joan eta poltsak bertan ematea. Erosketa karrroaren ibiltzea endredua da, askotan kalean nagoela zeozer falta zailada akordatu eta dendara joaten naiz. Poltsa horiek ondo ordainduta daude.



**Marta Cejas**  
31 urte, etxeandrea

Ondo, nire herrialdean ere horrela da, norberak eramaten ditu poltsak etxetik. Erositako guztia poltsetan sartzen ez bada bakarrik ematen dute poltsa. Ohitura kontua da, eta ingurumena zaintzeko neurri egokia da. Jendea ohituko litza-teke bere poltsa eramatera.



**Diego Marin**  
33 urte, zeladorea

Oso ondo iruditzen zait. Aurrezteko neurri egokia da, eta ingurumena askoz gutxiago kutsatuko litzateke. Lehen egiten zen moduan, karrua edo zestoarekin joan beharko ginateke erosketak egitera. Bestalde, produktuak ere plastiko gehiegi daukate gaur egun.



**Alfonso Migaes**  
59 urte, galdaragilea

Gaizki. Lehengora bueltatzeak ez dauka zentzurik, askoz erosoagoa da poltsak bertan ematea. Egia da, bestalde, poltsekin ingurumena asko kutsatzen dela, baina egin behar dena da poltsak birziklatu, horren aldeko kanpainak egin behar dira.

Faziola 40€	Orgizate packa, 5 tratamendurekin 160€	Alga estalkia + sauna + presoterapia 35€
Arroz tratamendua 60€	Aurpegi-zerbikal masajea 15€	Jogurt tratamendua 55€
Estresaren aurkako erritua 58€	Txokoterapia 48€	Krema packa eta aurpegi-zerbikal masajea 45€
		Laser depilazioa

**Judith**  
EDERGINTZA  
Erosario Kalea, 19 - Tel.: 943 74 29 90 / 667742118

**Eskaintza hauek eta gehiago!  
Gabonetan oparitu EDERTASUNA**

# 1983-2008: Gabonetako bertso jaialdiak 25 urte bete ditu



1981eko udaberria zen Elgoibarko Izarrak German Uriguen Etxegiña zenari omenaldia egin zionean. Santa Ageda eskean 55 urtez gure herrian kantuan jardun ondoren, koplari irten zen azken urtea izan zen 1981a. Une honetan erein zen, neurri handi batean, Elgoibarko bertso-laritzak 25 urteotan eman dituen fruituen hazia. Izan ere, omenaldia egin eta hilabete gutxira Anjel Ugarteburuk bertso-eskola sortu zuen, eta udaberriko umeen bertso-jaialdia ere urte horretan hasi zen loratzen. Bi urte beranduago, berriz, 1983an, hain zuzen ere, Elgoibarko Gabonetako bertso jaialdia prestatu zuen estreinakoz bertso-eskolak.

25 urte pasa dira ordutik. Kapitolean hasieran eta Herriko Antzokian ondoren, baina Gabonak bertso ukituarekin ezagutu ditugu gure herrian. Joxe Lizaso, Agirre, Azpillaga eta beste batzuk izan ziren hasieran; gero, Egaña, Sarasua, Euzkitze eta konpainia ezagutu genituen. Eta azken urteotan, berriz, Amets, Maialen edo Uxue bezalako gazte jendea igo da Herriko Antzokiko oholza gainera.

Gabonetako bertso jaialdiaren 25. urteurrenaren aterpea aprobetxatuta prestatu dugu gehigarri hau. Bertan, besteak beste, jaialdi honetako protagonista batzuk ezagutuko ditugu; ezkutuko lanean jardun zutenak eta oraindik ere badihardutenak. Gainera, bertsozaleei eta bertso-lariciei ere egin diegu tokia. Ospatzera goaz Gabonetako bertso jaialdiaren 25. urteurrena. Abendua hotza dator, euritsua, baina epeletan gozatzeko lau ekitaldia prestatu ditugu. Beraz, gonbidatuta zaudete bertsozale guztiok: sartu barrura eta gozatu.



# ERRETRATUAK





**Bertsotan bertsolariek egiten badute ere, beste hamaika lan daude saio batean egin beharrekoak. Eta horien atzean hamaika izen, anonimotasunaren ilunpetan geratuko direnak sarri. Norbaitek jartzen ditu ordea, herrian kartelak, norbaitek sarrerak saldu edo oholtza txukundu. Eskuren batek prestatuko du afaria, eta baita gaiak idatzi ere, ondoren bertsolariei aurkezteko. Horregatik, argitara ekarri ditugu teloia zabaldu aurretik dena prest egon dadin lanean jardun izan duten bi pertsona. Borondatezko lanean jardun duten izenen artean bi: Sebas Larrañaga eta Felix Arrizabalaga. Oholtza apaintzearen arduraduna bata, bertsolarientzako afaria prestatzearena bestea.**



## Felix Arrizabalaga

### **Urte askoan zeu izan zara bertsolariei afaria prestatu diena, ezta?**

Bai, saioa antolatzen hasi zirenen artean nengoen, bertsozalea bainaiz neu ere. Tarteka bat-batean ere kantatzen dut oraindik ere, lagunartean eta. Norbaitek prestatu behar zuen afaria eta neuk hartu nuen ardura. Eta orduetik, 15 bat urtean ibili nintzen lan horretan.

### **Plater batengatik egin omen zinen ezaguna.**

Bai, buztana preparatzen nuen urtero, buztanan gisatua.

### **Nolatan?**

Guk ez genuen jakiten zehatz zenbat etorriko ziren afaltzera. Hamar izango zirela esan eta agian hamalau azaltzen ziren. Ez genuen ziur jakiten kopurua, eta gehiagorentzat prestatzen genuen badaezpada. Horregatik, alferrik galduko ez zen zerbait prestatu behar zen. Buztana aurretik egiten genuen, gisatu handi bat, eta horrela ez zen arazorik egoten.

### **Bromak ere egingo zituzten Felixen buztanaren kontura.**

Tarteka aipatzen zuten kontua, bertsoaren batean edo. Afal ostean izaten zen saioa, eta zeozer komentatu ohi zuten. Erdi brometan edo ibiltzen ziren, eta ez nuen kontutan hartzen esaten zutena.



## Sebas Larrañaga

### **Zer dela eta bururatu zitzazun eszenatokia apaintzea?**

Polikiroldegian egin zen urte batean hasi ginen horretan, bertsolariak horma zuriaren aurrean abesten ikustea ez baitzen erakargarria. Horregatik, Elgoibarko Izarraren inguruan geundenok hasi ginen apur bat dekoratzen, tela zatiekin eta. Orduetik, urtero jarraitu dut lan horretan, Pakeren eta etxeokoen laguntzarekin. Orain paperarekin irudiak osatzen ditugu teloi beltzean.

### **Zergatik dekoratu eszenatokia?**

Bertsu saioak ez dira espektakulu bisualak, bertsolariak bertsoa abesten mikrofono aurrean geldi egoten dira eta nahiko hotza bihurtzen da. Hori aldatzeko hasi ginen oholtza gaina apaintzen. Gainera iruditzen zait bertsolariak lore txorta batekin abesten ikustea orain dela 50 urteko berdina eta ez da horrela. Izan ere bertsoak gaurkotasunaren isla dira, jorratzen dituen gaiak egungo garaietakoak baitira.

### **Egindako irudiek atentziora daitzen dute. Ba al dute esanahi berezirik?**

Saiatzen naiz zerbait adierazten beraienkin; niretzat sinbolismoa izaten duten irudiak dira. Edozein lekutatik ateratako ideiak erabiltzen ditut horretarako, edozer izan daiteke inspirazio iturria. Gero askotan ezin izaten da buruan duzun ideia hori gauzatu, baina...

# “BERTSOLARI HANDIRIK ATERA EZ ARREN, ZALETASUNA SORTU GENUEN”

Elgoibarrek bertsolari asko eman ez baditu ere, badira herrian zuzenean bertsolaritzarekin lotzen ditugun izenak. Angel Ugarteburu da horietako bat. Berriatuan jaio zen, Milloi auzoan, eta 1975ean ezkondu zen Elgoibarrera. Orduetik gure herrian jardun du irakaskuntzaren alorrean, Ikastolan lehenengo eta 1982tik aurrera institutuan, 2007an erretiratu arte. Angel izan zen 80 hamarkadan bertso eskolaren sustatzaile nagusietakoa, eta baita Gabonetako bertso jaialdiarena ere. Gure herrian bertsolaritzak izan duen ibilbidea ezin daiteke ulertu bera gabe.



### **Nondik halako bertsozaleatasuna, Angel?**

Etxean beti izan da zaleatasuna, amak ere askotan kantatzen zituen bertso eta koplak zaharrak, erromantzeak ... Gero, anaiak ere denak izan dira bertsozaleak. Gogoratzen naiz nola bidaltzen zizkigun batek soldadutzatik eta Gurseko kontzentrazio esparrutik bertsoak.

### **Zeuk ere bertso paper dezente idatzi duzu, ezta?**

Bai, idatzi beti egin izan dut. Oraindik ere egiten ditut zenbait bertso-sorta, dela ezkontza, bataio edo erretiro baterako. Testugintzan ere lan asko egin dut institutuko euskera mintegiaren baitan, ikastetxeetarako testu liburu ugari idatzi ditugu. Orainsu, beste liburu bat ere argitaratu dut, “Milloitik mundura”, eta bertan kontatzen ditut ume

garaiko pasadizoak.

### **Bat-batean jardun al duzu sekula?**

Ez naiz asko aritu. Behin kantatu behar nuen Santa eskean koplari moduan. Sekulako elurtea bota zuen ordea eta ezin izan ginen irten, eta kantatu gabe geratu nintzen. Gero, seminarioan Xabier Amurizarekin batera egon nintzen, eta haren sparring moduan aritzen nintzen, hari entrenatzen laguntzen. Bestela oso gutxi; bertsolariak tabernetan eta ibiltzen ziren batez ere, eta ni ezin nintzen giro horretan ibili, ikasketetan buru belarri nembilen orduan.

### **Irakaskuntzan jardun duzu urte askoan.**

Bai, Eibarko ikastolan lehenengo, 1972an hasita sei urtez.

Gero Elgoibarko Ikastolara etorri nintzen, eta zuzendaritzan ere egon nintzen pare bat urtez. Urte gehienak Institutuan pasa ditut ordea, 1982tik 2007ra, erretiroa hartu arte. Euskal lineak indartu nahian aritu nintzen, euskara mintegiko Andres Alberdi, Inasio Garmendia eta Miriam Villasanterekin batera. Izan ere, Elgoibarren ez da euskaltzaletasun gehiegi egon. Ez, eta hori bertsolaritzarekin lotuta ere badago neurri handi batean. Kanpotik ere jende ugari etorri zen garai batean, eta giroa erdaldunduz joan zen. Inguruko bailaren ondoan, Markina-Berriatua edo Azkoitia-Azpeitia inguruekin alderatuta, euskara gutxi entzuten zen Elgoibarren, eta euskararik gabe ezin bertsolaritzara hurbildu.

### **Eta nolatan sortu zenuten bertso-eskola?**

Aurretik hasita zeuden Eskoriatzan eta bertso eskolak sortzen. Patxi Goikolea, Xanti Iparragirre ... ziren irakasleak, eta ikasleen artean berriz, Sarasuatarrak, Arantzazu Loidi, Felix Iñurrategi ... zeuden. Orduan hasi zen indarra hartzen bertsotan irakatsi zitekeenaren ideia, eta guk ere aproba egitea erabaki genuen. Ideia horri jarraituz, 1981ean Elgoibarko bertso-eskola sortu genuen.

### **Zein asmo bete nahi ziren bertso-eskolarekin?**

Haur eta gazteak bertsolaritzara hurbiltzea nahi genuen, gure nahi nagusia ez zen bertsolariak osatzea. Almazena bete nahi genien: errimak, doinuak, bertso zaharrak ... Era horretan euskarara ere hurbiltzen genituen, euskaltzaletu egiten genituen gazteak. Herrian zegoen hutsune bat betetzen saiatu ginen.

### **Zer nolako harrera izan zuen bertso-eskola sortu berriak?**

Umeak musika, dantza, futbola... en ordutegiak fin- katuta zituztenean egiten genuen bertso eskolarako deia. Hasierako urteetan 8-10 ume, talde txikia biltzen ginen gaur egungo Elgoibarko Izarrako lokalean. Baina, denborarekin kopurua handitzen joan zen eta hogeit bat pertsona biltzera iritsi ginen.

### **Berri ona izango zen hori.**

Bai eta ez. Pozgarria zen gazteak bertso-eskolara hurbiltzea, baina horrelako jende kopuruak arazoak ere sortu zizkigun. Beste laguntzaile batzuk ere izan nituen: Daniel Legorburu, Xabier Arriola, Mari Kruz Intxausti, Pake Garzia... Baina, hala ere zaila da ta-maina horretako talde bat zuzentzea, oso motel aurreratzen da. Azkenean, doinuak ikasi eta bertso zaharrak abestu egiten genuen batez ere, maila desberdinetako jendea zegoen eta. Bazirudien, neurri batean, haurtzaindegi antzeko bat zela, gurasoek haurrak kontrolatuta edukitzeko era bat. Gaur

egun berriro egoera berean aurkituko banintz muga bat jarri eta hamar bat umerekin eramango nuke aurrera bertso eskola.

### **Gabonetako jaialdia ere bertso-eskolaren baitan sortu zen, ezta?**

Bertso eskola sortu genuenean 2 jaialdi egitea pentsatu genuen: bat udaberrian, bertan bertso eskolako ikasleak abestuko zuten, eta bestea gabonetan plazaz plaza zebiltzan bertsolariekin. Urteak pasa ahala, Gabonetako jaialdia instituzionalizatzea erabaki genuen, urtero bertso jaialdi bat egiteko aukera ziurtatu nahian. Au-rretik ere egiten ziren saloak Elgoibarren, baina ez jaialdi gisara, beste formatu batzuetan.

### **Antolakuntzan ere bertso eskolaren inguruko jendeak jardungo zuen.**

Bai, geu arduratzen ginen gauza gehienetaz. Ni neu, Pake, Mari Kruz ... biltzen ginen guztia lotzeko. Giak, berriz, Etxegiña bertso-paper lehiaketako epaimahaiak jartzen zituen, lehiaketa ere garai beretsuan izaten zela aprobetxatuz.

### **Jaialdia asko aldatuko zen 25 urtean, ezta?**

Bai, noski. Bertsolariak aldatzen joan dira, gazteagoi lekua utziz. Euzkitze urte mordoxkan etorri zen, Lizaso ere askotan, Andoni Egaña ere bai beranduago, eta beste hainbat puntako bertsolari. Lekuak ere aldatu dira tarteka, gehienetan Herriko Antzokian egin arren. 80. hamarkadaren amaieran eta 90.aren hasieran bertso-boom deltua egon zen, eta espazio handiago baten bila Polikiroldegira jo genuen.

### **Egindako lanak emandako emaitzarekin gustura al zaude?**

Beno, puntako bertsolaririk ateratzea ez genuen lortu, baina uste dut herrian bertsozaleatasuna indartzeko balio izan zuela. Batzuek bat-batean kantatzera iritsi ziren, eta badakit gaur egun ere tarteka jai giroan bertsotan jarduten dutela. Horrek poza ematen du.

### **Eta, hemendik aurrera zer?**

Elgoibarren bertsolaritza indartzea zaila da. Industriatik edo immigrazioa jasan duen herria izan da, lehen Espainiako probintzietatik eta gaur egun Espainiaz kanpoko herrialdeetatik. Bertsolaritzarako beharrezkoa da euskararen malla egokila izatea, gehienbat bertsoak ulertu eta osatu ahal izateko, eta herri honetan, tamalez, ez gaude nahi bezain on-do. Horregatik Elgoibarko euskara maila hobetzea izango litzake egin beharreko lehenengo gauza. Eta gero, ondo egongo litzateke herri mailako bertso eskola bat.

**Saio bat ez da ezer entzulerik gabe, tristea behar du izan mikrofono aurrean jarri eta Herriko Antzokia hutsik ikusteak. Horregatik, hiru bertsozale fidelen hitzak bildu ditugu, saiora hurbildu diren ehunka bertsozaleen hitzak entzun daitezen beraien ahotik.**



## Nora Hadi

Haurra zela hasi zen Nora Gabonetako bertso saiora joaten, gurasoekin. Orduetik ia urtero joan da, baina azken aldian lagu-nekin. Denen tartean badu saio bat era berezian gogoratuko duena: *"Urte batean Ainboa Mendibilek esan zidan panderoa jotzeko trikitilari batekin, bikotea falta zitzaiola eta. Lotsa apur batekin, baina animatu nintzen azkenean".*

Bere iritziz, Gabonetako saioa tresna egokia izan da jendea bertsoaritzara hurbiltzeko, *"ezango nuke bertsozaleak sortzeko balio izan duela, Elgoibarren gazte bertsozale gutxi egon arren"*. Hori konpontzeko beharrezkoa iruditzen zaio herrian bertso-eskola bat. Bera ere ibilia da Errazu bertso-eskolan, bat-batean ere bai. *"Ikastolatik herrira zabaldu bebar dela uste dut; horrela gazte gehiago animatuko da"*.



## Mari Kruz Intxausti

Urte askoan ibili da Mari Kruz bertsoaren jiran, *"Angel, Pake, Jabier, Daniel ...ekin sartu nintzen ni bertso-eskolan. Etxegiñako bertsoak zuzentzen genituen, eta, batez ere, ikasteko balio izan zidan; formakuntza bartzeko."*

Antolakuntza lagatzen joan zen, baina entzule fina da: *"uste dut urtero joan naizela, behin izan ezik"*. Aldaketa asko ikusi izan ditu hainbeste urtean; saioak ere denetarikoak *"baina, beti ateratzen duzu zerbait positiboa"*. Bertsolariet egindako kritikak ere gogoratzen ditu *"Elgoibarko publikoa oso hotza zela esaten zuten"*.

Irakaskuntzan ere saiatu da haurrak bertsozale izan *"beti landu izan dut bertsoaritzaren ikasgelan"*. Hemendik aurrera ere bide berean jarraituko du, *"bertsozale izan naiz, banaiz eta izango naiz"*.



## Daniel Legorburu

Bertso-eskolako kide izan zen Daniel, eta berak ere jardun zuen bertso jaialdiaren antolaketa lanetan: *"Bertsolariei deitzen genien, eta saiatzen ginen puntakoak ekartzten; jendearen gustukoak"*. Antzokiarekin ere hor ibiltzen ziren *"beteko zen ala ez dudatan; baina animosoa izaten zen"*

*"Gero Elgoibarko Izarra hasi zen antolatzen, euskera indartze aldera, eta gazte asko hurbiltzen zen saiora"*. Ez du uste Elgoibarren bertsozale gutxi dagoenik, *"begira ze mailatan dabilen Uxue Alberdi, adibidez"*. Bertso-eskolara ere gazte asko joaten omen zen, eta egindako lanak euskara indartzeko behintzat balio izan du Danielen iritziz.

Bertsozalea da oraindik ere: *"inguruko jaialdietara joaten naiz, oso berandu ez bada behintzat. Hitzetik Hortzera ere ikusten dut; saio politikak ematen dituzte"*.

# Xabier Euzkitze

Txapelketa batzuk irabaziak nituen, baina egundoko urratsa zen niretzat ordura arte eredu izan ziren bertsolarietkin kantatzea. Lazkao Txikirekin, esate baterako, lehen saioa hantxe egin nuela uste dut. Beti ondo hartu izan ninduten, beti eroso aritu izan nintzen. Ez zen saioa bakarrik izaten: lehen hitzordua, ondorengo afaria, Gazte-gazterik hasi nintzen Elgoibarren kantatzen. Ordurako gaztetxo eta gazte mailan saioa bera, saio osteko tragoak... Pake, Anjel, Daniel, Jabier Arriola...

Elgoibar izan zen niri urte askoan segidan deitu zidan

lehen herria, eta lehen zalantzak sortu zizkidana. Lau edo boskarren urterako kezkatzen hasi nintzen, ona ote zen hainbeste urtez jarraian herri berean kantatzea, nitaz aspertuxeak ez ote ziren izango hango entzuleak. Ordurako banekien oso ohikoa zela hori, bazirela herri berean 30 urte baino gehiagoan kantatutako bertsolariak, hori harro kontatzen zutenak. Niri ez zitzaidan gustatzen. Gerora beste zenbait lekutan berriro zitzaidan arregurua hori bera. Nolanahi ere, oso oroitzapen goxoak ditut. Elgoibar da, zalantzarik gabe, goxotasunik gehien eskaini izan didan herrietako bat, eta hori ez da sekula ahanzten.

## POTORIK GABE ( Uxue Alberdi)



Potoa zigortu egiten da, baina ez, hain zuzen, bertsoan. Esango nuke juxtu potoarekin duen harremanak salbatzen duela bertsoa desagertzetik. Potoa, zorroa, ontzia, lata... Produktu guztiak, artistikoak ere bai, zerbaitetan bilduta saltzen baitira, eta gero eta gehiago ordaintzen dugu paketeagatik, barruan daraman produktuagatik baino.

Izan ere, zenbat balio du musikak? Literaturak? Ilustrazioak? Interpretazioak? Zenbat balio dute ideiek? Talentuak? Umoreak? Ba, gaur egun balio dute, gutxi gorabehera, paketeak adina. Formatuak eta euskarriak adina.

Nago, egitura sinpleetan dagoela etorkizuna. Bertsoak ez du euskarrikerik behar, izan lezake, baina ez du behar. Bertsoak ez du antzokirik, baffle potenterik, aurkezlerik, diseinuzko arroparik, argirik, saltoki handirik, zinemarik, DVDrik,

pantailarik, managerrik, editorerik, dendarik, erakusleihorik... behar. Izan ditzake, eta kasu askotan baditu, baina ez ditu behar. Bertsoarekin dago potoaren menpe. Potorik gabe ere funtziona dezake bertsoak.

Komunikazioaren forma primitiboak izan daitezke bertsoa, edo izan daitezke landua, musikaz eta interpretazioz lagundua, baina betiere inprobisatua. Arrisku horrek ematen dion emozioarekin. Nori ez zaio gustatzen eraikinaren teilatua dilindan dabilen ekilibristari beha egotea? Nahi beste jantzi daitezke bertsoa, baina ez du biluzik ibiltzeko lotsarik.

Batzuk diote Elgoibar ez dela herri bertsozalea, gure herria bertsoarentzat poto eskasa balitz bezala. Baina ontzi horretara ere berdin berdin egokitzen dira bertsoaren neurriak. Likidoa delako. Horixe du bentaja: potoa birziklatu beharrean bertsoa bera birziklatzen da. Ekonomikoa eta ekologikoa, krisi garairako.

## BADA ZERBAIT (German Meabeasterretxea)



Gabonetako bertso jaialdia estreinakoz antolatu zenetik 25 urte beteko dira aurtengo abenduan; bada zerbaít . Dudarik gabe, aurretik ere izango ziren gure herrian bertsolariak, bertso saioak eta bertsoaren inguruko ekimenak.

Historian atzera egingo bagenu, badira hamarkada batzuk German Uriguen "Etxeginak" eta Elgoibarko herriak elkarren izenak betirako uztartu zituztela, Santa Ageda lekuko zutelarik. Orduz geroztik, ez da Santa Agedari eskainitako koplarik falta izan gure inguruan. Bertso-eskola ere ez da atzo goizekoa. Lehen pausoak eman zituenetik 80ko hamarkadan, era batera edo bestera, izen batekin edo bestearekin, bultzatzaile desberdinak tarteko, bertso giroaren hauspoa izan da gure herrian.

Urte osoan zehar presentzia zabala du bertsoak gure kale, plaza eta auzoetan: libreko saioak, mahai ingurukoak, jai giroan eginak,

omenaldietan ... . Eredua eta formatu askotarikoak. Maila desberdinetako bertsolariak bidelagun harturik eta suspertzaile edo antolatzaile desberdinek bultzatutako ekimenen barne. Eta aniztasun horretan dago aberastasuna.

Eta urtearen hondarrean, 25 urtez jarraian bertsozaletasunaren lekuko, Gabonetako bertso jaialdia. Aipagarria gure herriko kulturgingintzan izan duen lekua. Hasiara-hasieratik, garaian garaiko bertsolari onenek kantatu dute jaialdi horretan, herriko bertsolariok hauekin tartekatuz ere parte hartzeko aukera izan dugularik. Hala ere, egun bateko distirak ez luke zentsurik aurrez aipatutako saio eta ekimenak burutuko ez balira urtean zehar. Oinarritik eta oinarrian egin behar da lana bertsoaren inguruan gozatzen ikasteko. Eliteko bertsolariak noizbehinka begiratu ahal izateko ispilua bezala hartu behar dugu. Bertsoaren gorpila martxan ezagutu genuen, eta horrela jarrai dezan gure ahalegina egiten ari gara. Etorkizunean ere ez dut zalantzarik gorpil horri eragiteko prest daudenak bidelagun izango ditugula. Hala bedi.

## GOAZENI! (Errazu)



Ez da egia Elgoibarren bertsozale gutxi dagoela, horrek asko dagoela esan nahi ez duen arren. Gure herrian bada bertsoarako sekulako afizioa duenik, saioetara joaten denik edo Hitzetik Hartzera astero irensten duenik. Horrelakoak ere bagara Elgoibartarrok.

Bakoitza bere aldetik doanaren itzura dauka, ordea; ez dago zaletu guztiok elkartuko gaituen tresnarik. Lehortutako lakuaren antzekoa da gaur egungo egoera: putzu txikiak baino ez daude, elkarren arteko harremanik gabe. Eta zaila da horrela arrainak haztea. Errazu bertso-eskola badela ere inork gutxi jakingo du. Geure erruz, agian, ez dugulako asmatu herriari zer garen esplikatzeko. Errazu bertso-eskola badela ere inork gutxi jakingo du. Geure erruz, agian, ez dugulako asmatu herriari zer garen esplikatzeko. Baina, badago zerbaít gure esperientziatik ikasi beharrekoa:

ausardia. Erotzat hartu eta barre egin zieten lehenengo ausartu zirenei. Bi gazte, nerabe, bertso eskola bat sortzera?

Orain, zazpi urte beranduago, esan dezakegu zerbaít atera zela handik. Dozenaka haur eta gazteko igaro dira bertso eskolatik urte hauetan, eta pentsatu nahi genuke denek eraman dutela berekin zerbaít, eman ere egin duten bezala. Adin bat iristean ordea, jarraipenik gabe aurkitzen dira denak.

Horregatik iruditzen zaigu beharrezkoa herri mailan funtzionatu duen bertso eskola sortzea. Zaletuon topalekua izango dena, herrian bertsozaletasuna bultzatuko duena. Gure aurretik saiatu izan dira, alpagata zahar batzuk jantzita. Guk, prisarik gabe, artilezko galtzerdiak eta mendiko bota onak jantzi eta aurrera egin behar genuke, oztupoak aurkituko ditugun arren. Hanka sartzeari diogun heldurra irentsi eta ez ote gara ausartuko lehen pausoa ematera?

# Abendua Bertsoan!

## Abenduak 12, ostirala (22:00):

*Ornitorrinkus* ikuskizuna.

Musika garaikidea eta bertsoa.

Maialen Lujanbio bertsolaria, Judith Montero saxo-jotzailea eta Xabi Erkizia (hotsak, soinua eta zaratak).

Kultur Etxeko sotoan.

## Abenduak 17, asteazkena (19:00):

Mahaingurua: *Bertsolaritza Elgoibarren: oraina eta etorkizuna*

Angel Ugarteburu, German Meabebasterretxea eta Uxue Alberdi

Moderatzailea: Irati Agirreazaldeg

Kultur Etxeko hitzaldi gelan .

## Abenduak 19, ostirala (21:30):

Elgoibar bertsoan! afari-jai

Jose *Armaitxa*, Angel Ugarteburu, Uxue Alberdi, Meabebasterretxea eta Ziarda, Errazu bertso-eskola, ... eta sorpresa mordo bat!

SIGMA jatetxean

Informazioa eta izena emateko:

943 74 16 26 / [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com)

Prezioa: 30€ ( 25 € Elgoibarko Izarrako bazkideek)

Aurretik bertso-poteoa izango da (Lanbroa tabernan, 19:30ean)

## Abenduak 26, ostirala (22:30):

GABONETAKO BERTSO-JAIALDI BEREZIA (25. urteurrena)

Xabier Amuriza

Andoni Egaña

Unai Iturriaga

Maialen Lujanbio

Uxue Alberdi

Beñat Gaztelumendi

Gai-jartzailea: Saroi Jauregi

Herriko Antzokian

Prezioa: 9 € (6€ Elgoibarko Izarrako bazkideek)

Sarreraren aurre-salmenta Elgoibarko Izarran (abenduaren 23ra arte)

## Gure berbak

### Aditza (35): Aditz trinkuak: JUAN eta EGON aditzak

Hauek dira JUAN aditzaren lehenaldiko formak:

- ♦ Neutrua: *nixen, zixen, ginduazen, zinduazen, zinduazten, zixezen.*
- ♦ Alokutiboa (giz.): *najien, huan, jiek, ginduazen, jjezan.*
- ♦ Alokutiboa (emak.): *najienan, huan, jienan, gindunazen, jaienazen.*

JUAN aditzaren adibide batzuk emanez amaituko doguz aditz horrekikuak (Elgoibarko berri-emaillienak dira):

- ♦ *Haura kalera dixenian, bakarrik geratzen naiz.*
- ♦ *Erderaz ere edarki etortzen dok hori, baiña e' najiek erderaz egittera hemen.*
- ♦ *Da, injineru horrek ere, pentsau zaban: "ba ya itxasora guazak, itxasora guazak!"*

EGON aditzari dagokionez, hona hemen aditz horren oraiñaldiko formak:

- ♦ Neutrua: *nago, dago, zaude, zaudete, daude.*
- ♦ Alokutiboa (giz.): *nagok, hago, dagok, gauaz, dauaz.*
- ♦ Alokutiboa (emak.): *nagon, hago, dagon, gaonaz, daonaz.*

EGON aditzaren adibide batzuk:

- ♦ *Entzunda hago sekula holakorik?*
- ♦ *Andra gaztiak eta, bizkaitarrak eta, daure asko.*
- ♦ *Hemen bajauan, baiña garixa ixotzekorik ez. Artuanak bai, bajauazan, baiña etxauen lagatzen.*
- ♦ *Irunen gauazen, eta handik jaiero etortzen giñuazen.*
- ♦ *Girua dagok oiñ edarra.*
- ♦ *Gurian lau lagun gauaz, eta hiru kotxe dauaz. Eta neu nagok kotxeripekorikan.*

Jesus Mari Makazaga

## Erretratu zaharra

### 1977

Aste honetako erretratu zaharra Angeles Ortuostek laga digu. 1977. urteko Trinitate jaietan ateratakoa da argazkia, Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak antolatzen zuen danborradakoa, hain zuzen ere. Erretratuan agertzen diren gazteek euren kabuz egin zuten karroza: sareen bila Mutrikura joan ziren, eta karroza Santa Ana kaleko aroztegi batean egin zuten. Gogora ditzagun erretratuan azaltzen diren gazteak.

**Karroza gainean, ezkerretik eskumara:** Angeles Ortuoste, Javier Saez eta Itziar Agirregomezkorta.

**Behean, zutik ezkerretik eskumara:** Rufo Del Valle, Agustin Armendia, Iñaki In-txausti (†) eta Jose Inazio Saez.



### ESKERTZA

## MANUELA LARRAÑAGA IRURETA



2008ko azaroaren 27an hil zen, 90 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## JON ZULOAGA

Ehiztaria

Jon Zuloagak txikitatik etxean ikusi eta ikasi du ehizatzen. Kirol bezala gustatzen zaio ehiza; eta arrantza eta perretxi-koak biltzea ere gustuko du mendarorarak.

“Ehizatzen dudan ezer ere ez dut jaten, ez dut gustuko-eta”



**Ehiztaria zara. Ehizatik zer gustatzen zaizu gehien?**

Ehiza bera kirol moduan gustuko dut, nahiz eta askotan ehiztarion irudia, mendira kotxean igo, hamaiketako egin eta etxera bueltatzen garen horiena izan... niretzat udazkenean txoriak hegoalderako bidaia horretan gure mendietatik pasatzen ikustea bezelakorik ez dago.

**Norekin joaten zara ehizatzerara?**

Mendaron ez dago ehizarako eta arrantzarako afizio handiegirik gazteen artean, baina adin desberdinetako jendearekin harremana izatea ahalbidetzen dizu horrek. Denon artean lagunarte ederra egiten dugu.

**Noiztik datorkizu afizioa?**

Txikitatik etxean besterik ez dut ikusi, ehi-za eta arrantza. Hori bai, ez da izan beha-

rrezkoa inor niri afizio horiek ezartzen saiatzea.

**Aurtengoa ehiza denboraldia txarra izan dela diote batzuk. Hala da?**

Pasearen inguruan txarra bai, eta badira zenbait urte jarraian... datorren urtean pasako dira azken urteetan etorri ez diren usoak. Seguru!

**Ehizatutakoarekin zer egiten duzu?**

Ehizatzen dudan ezer ere ez dut jaten, ez dut gustuko-eta. Txuleta eder bat hobe!

**Ehiza gizonentzat bakarrik, ala emakumezkoak ere joaten dira?**

Gehiengoa gizonetzkoak osatzen dugu, baina emakumezkoak ere badira.

**Arrantzalea ere bazara. Non arrantzatzen duzu? Itsasoan ala errekan?**

Bietan, baina batik bat errekan... nahiz eta

azken urteotan gure erreka eta ibaiak beharakada ikaragarria izan arranei dagokionez... eta hori zenbaitzuen esanetan garbiago daudela!

**Eta perretxikoei dagokionez, bildu eta gero jan, ala ez zaizkizu gustatzen jateko?**

Horiek bai ditut gustuko. Bakarrik edo aitarekin joaten naiz perretxiko bila... bada-kizu, norbere kotoak besteei ez zaizkie erakutsi behar!

**Hiru afizioetatik, zein gustatzen zaizu gehien?**

Hirurak ditut gustuko, eta gainera edozein urte sasotan praktikatzen dira: martxotik uztaileira bitartean, arrantza; uztailetik urri erdialdera perretxikoak, eta hortik aurrera ehiza egitera joaten naiz. Ez dago gaizki, eh!

**KONTZERTU AZOKA**  
Mendaron, 2008ko abenduaren 6an  
9:30etatik 14:00etara Barazki, artisauak eta abereak.  
Baserritar bikote dotoreenarentzat saria egongo da.  
Animatu zaitezte!!!

ANTOLATZAILEAK:



## Kontzezio Azoka izango da bihar, zapatua

**B**aserriko produktuak eta artisauek Egindakoak eskuratzeko aukera aparta izango da bihar, zapatua, Kontzezio azoka izango da-eta.

Azoka 9:30ean hasiko da. Eta hainbat produktu egongo dira salgai: barazkiak, frutak, pastak, pastelak, ogia eta produktu ekologikoak. Horrez gain, artisauek landutako lanak ere izango dira azokan.

### Egitaraua

Trikitixa dantza taldearen kalejira 12:00etan hasiko da. Ordu erdi geroago txahal dastaketa eta sagardoa izango dira. Herri kirolak 13:00etan hasiko dira. 14:00etan, berriz, baserriar jantzitako bikote onenari saria emango diote.

Arratsaldeko jaialdia San Agustin kulturunean izango dela iragarri dute antolatzaleek.

### Udal aurrekontua onartu dute datorren urterako

Mendaroko Udalak 2.100.000 euroko aurrekontua onartu zuen eguenean, EAJ-PNVren aldeko 5 botuekin. EAKo hiru zinegotziak eta PSE-EEko bakarra abstenitu egin ziren. Horrez gain, Oregi Aldeko terrenoen donazioa eta 2008-2011 berdintasun plana aho batez onartu zuten.

### Hasi dira ospitaleko obrak

Larrialdi zerbitzua handitzeko obrak hasi dituzte Mendaroko ospitalean. Hori dela eta, 400 metro koadroko eraikin berria egiteari ekin diote. Bi solairu izango ditu, gainera. Lanen ondorioz hainbat aparkaleku kendu egin behar izan dituzte eta azken boladan ospitalean aparkatzea zailagoa da. Lanek urtebete inguru iraungo dute. Larrialdi zerbitzuetan 30.000 kasu hartzen dituzte urtero.



# TXIRRISTAKA TABERNA

*Mila esker, **25 urtez,**  
pausoz pausoz hazten  
laguntzeagatik.*

Mendarozabal, 1    Tel.: 943 75 61 39 (Mendaro)

# MAITENA MURUZABAL Zinemagilea

Datorren egunean, hilaren 11n, 'Nevando voy' filma ikusi ahal izango da Elgoibarko zineman. Baina pelikula ikusteaz gain, bi zuzendarietako batekin berba egiteko aukera ere egongo da, Maitena Muruzabalekin. Candela Figueirarekin batera egin duen filman orain dela lau urte berak bizi izandakoa kontatzen du pelikulak: elurretarako kateak egiten dituen enpresa bateko kontuak.



“Laneko arauak aldatuta lana hobeto egin daitekeela kontatzen du filmak”

*'Nevando voy' filmeko zuzendariak: ezkerrean Candela Figueira eta eskuman Maitena Muruzabal.*

**Nevando voy pelikula Candela Figueirarekin elkartanean sortu duzu, zure lehen lana izan da?**

Candela eta biok, batez ere, ekoizpen arloan aritu ginen eta baita lana egiten. Ekoizpeari dagokionez, beste film labur eta luze batzuetan egin dugu lana baina hau izan da gure lehenengo lana ekoizle bakar moduan eta zuzendari eta gidolari moduan.

**Beti egiten duzue elkarrekin lana, ala bakarrik ere egin duzu proiekturen bat?**

Iaz ezagutu genuen elkar Candelak eta biok, Los Angelesen, eta han film labur ekoizten aritu gara. Lagun talde bat egin genuen eta euren zenbait film labur egin genituen Candelak eta biok ekoiztuta. Film luzeetan, batzuetan bakoitzak berea ekoizten genuen, eta film luze bat, ardura handiagokoa, elkarrekin egin genuen.

**Pelikulak, krisi garaian, lan pilaketaren inguruan egiten du berba. Nondik sortutako istorioa da?**

Orain dela lau urte, lruñean nengoen, eta bertan geratu nahi nuen gure proiektuak egiteko, eta aukera bat egin nuen: edozein lan egitea denbora izateko nire proiektuetan aritu ahal izateko. ETT batean eman nuen izena eta handik elurretarako kateak egiten zituen lante-

gi batera bidali ninduten. Pelikulan agertzen den lantegi berean egin nuen lan, eta nik bizi izaten nuena kontatu nahi izan dugu; pixka bat aldatuta, baina batez ere nire esperientzia da. Ezer espero gabe joan nintzen lan horretara, eta oso pozik nengoen niretzat gustukoa ez zen lan batean. Goizeko 5:30ean esnatzen eta sekulako hotza egiten zuen lantegi batean pozik nengoen. Printzipioz oso ona ez den egoera batean pozik egotea erraza dela ikusi nuen; izan ere, inguruan ditugun pertsonak dira garrantzitsuena. Laneko arauak aldatuta lana hobeto egin daitekeela ikusi nuen; eta horixe kontatu nahi izan nuen.

**Komunikazioa ikasi zenuen, eta zinema mundutik zoaz...**

Komunikazioaren alor guztiak gustatzen zaizkit, baina zinema zure sentimenduak adierazteko oso erabilgarria dela ikusi nuen ikasle garaian, eta gehiago gustatzen hasi zitzaidan.

**Elgoibarrera zatorz filma aurkeztera. Urduri zaude?**

Urduritasuna hasierako proiektioetan bai, ez nekielako ikusleek uler-tuko zuten ala ez, edo gustatuko zitzaien ala ez; baina orain ziurtasun handiagoa dugu pelikulan eta ilusioarekin nator. Jendeak filma ikus-tea eta osteko hitzaldia asko gustatzen zait. Ikuslearen burutazioak entzutea gustuko dut.

# 'Cincuentones' antzezlana eskainiko dute datorren barixakuan, hilaren 12an

Emanaldia 25:15ean hasiko da Herriko Antzokian



**A**ntzerkia gustuko duenak datorren barixakuan, hilaren 12an, dauka hurrengo hitzordua. 22:15ean hasitan *Cincuentones* antzezlana ikusi ahal izango da Herriko Antzokian.

Hiru gizon dira antzezlaneko protagonistak: Paco Obregon, Janfri Topera eta Kike Diaz de Rada aktoreak. Diktadura sasoian elkarrekin ikasi zuten uni-

bertsitatean, eta orain berriro elkartuko dira. Hirurak aldaketak bizi izaten ari dira: bata abokatu da eta gazte batekin maitemindu da; bigarrenak publizitatean egiten du lana eta gazte garaiko amodio bat berreskuratu du; eta hirugarrena unibertsitateko maisua da eta arazoak ditu emaztearekin. Umore klabean kontatzen da istorioa.

## 'Jokoaut'-en emanaldia "arrakastatsua" izan zela dio Udaleko Gazteria Sailak

Joan den asteko barixaku eguerdian Pikor taldeak *Jokoaut* antzezlana eskaini zuen. Hamahiru eta hamazortzi urte bitarteko 330 gaztek izan zuten antzezlana ikusteko aukera eta Udaleko Gazteria Sailak "arrakastatsua" izan zela dio. Antzezlanak eskola jazarpena eta gizarte harremanak menpe dituen biolentzia orokorra lantzen ditu: mundu helduaren biolentzia eta gazteek horretaz egiten duten interpretazioa, irainen krudeltasuna eta objektu eta animalien aurkako biolentzia lantzen ditu, besteak beste. Ikasleek ikusi aurretik ikastetxean gaiari sarrera egin zioten, eta orain, gaia sakontasunean landuko dute.



## Euskarazko produktuen katalogoa banatuko du Udaleko Euskara Sailak

Euskara biziberritzeko egitasmoaren barruan, eta Gabonetako opariak euskaraz egiteko kanpainaren barruan, 4.500 katalogo banatuko ditu Udaleko Euskara Sailak herritarren artean. Katalogo horietan euskaraz ekoizten den musika, informatikako materiala, bideo, DVD, liburu, aldizkari, jostailu eta jokoak agertzen dira.

Katalogoa sarean ere kontsultatu daiteke [www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org) webgunean edo [www.elgoibar.org](http://www.elgoibar.org) helbidean.

## Bilboko haur-parkera irteera hilaren 26ra atzeratu dute

Zuhaitz aisialdi taldea Bilboko gabonetako haur-parkera irteera prestatzen hasi da. Abenduaren 22rako egin zuten hitzordua, baina egun horretan, herriko haur batzuk klasea edukiko dute, eta beraz, irteera hilaren 26ra atzeratzea erabaki dute. Izena emateko deitu ondoko zenbakira: 687 515 962.

## Gotzon Garate omentzeko liburua kaleratu dute

Gotzon Garate zenari omenaldi xumeat egin nahirik, Udalak, Hasier Etxeberria idazle eta kazetari elgoibartarrak Garateri berari egin zion elkarrizketa bat berreskuratu du. Elkarrizketa *Jakin* aldizkarian argitaratu zen, 2005 urtean. Hainbat ale banatu ditu Udalak herriko ikastetxetan, euskaltegietan, eta euskalgintzan dihardutenen artean.

ESKERTZA

## MATILDE GARATE ARRIOLA


2008ko azaroaren 26an hil zen, 88 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## Elgoibarko hogeit hamar lagunek amaitu zuten Donostiako maratonia

Aurreko bi urteetan zortzik bakarrik hartu dute parte

**E**guraldi hotzari, euriari eta haizeari aurre eginez, Donostiako maratonia amaitu duten 2.641 lagunaren artean hogeit hamar elgoibartar daude. Markak hobetzearena beste baterako laga beharko zutela ikusi zuten denek hasieratik bertatik, eta 42 kilometro korrika egitea norbere buruari irabazi beharreko erronka bihurtu zen. Nabarmentzekoa da aurreko bi edizioetan, zortzina elgoibartarrek parte hartu zutela erresistentzia proba gogor honetan. Elgoibartarren artean Jose Antonio Ruizek egin zuen denborarik onena, sailkapen nagusiko 48. postuan.



Ezkerrean Mikel Arriola lasterketako une batean, eta eskuman Jon Revert helmugan.

### Sailkapena

48. Jose Antonio Ruiz	2:37:04
74. Oscar Malvar	2:41:31
254. Jon Revert	2:54:35
673. Jesus Mari Agirretxe	3:07:12
799. Danel Fernandez	3:10:32
808. Mariano Lopez	3:09:30
949. Eduardo Uribe	3:13:01
1.000. Javi Fernandez	3:15:57
1.256. Berex Ortiz	3:22:03
1.257. David Soto	3:22:03
1.555. Ignacio Perez	3:28:13
1.848. Modesto Cid	3:36:30
1.882. Juan Jose Gurrutxaga	3:37:45
2.145. Tomas Gonzalez	3:48:18
2.145. Maria Pilar Arriola	3:48:34
2.150. Asier Arrieta	3:48:35
2.183. Tomas Angel Azpeleta	3:49:08
2.381. Unai Narbaiza	3:58:44
2.487. Mikel Arriola	4:09:22
2.619. Xabier Elustondo	4:31:10

## Evelyn Santos futbolaria “El Calendario del año” saioan



*El Calendario del año* ETB-2ko telebista saioan parte hartu dute Realeko nesken taldeko sei jokalarik, tartean Evelyn Santos elgoibartarrak. Donostiako toki-rik esanguratsuenetan (Haizearen Orrazia, Ondarretako hondartza...) jendaurrean egindako argazki saioetan, euren alderik sentzualena erakutsi behar izan zuten futbolari txuri-urdinek.

## Iñaki Lucas, Espainiako Eskrima txapelduna

Joan den asteburuan Espainiako Eskrima Txapelketa jokatu zuten Madril-en eta Elgoibarko Iñaki Lucas izan zen txapelduna. Elgoibarko wingsun-eskrima eskolako ikaslea da Lucas eta teknikan maila handia erakutsi zuen, borroka guztiak irabazita.



# Hilaren 12tik 19ra jokatuko dute Nazioarteko Xake Txapelketa

Aurten udaletzeko pleno aretoan jokatuko dira partidak

Astebete falta da Nazioarteko Xake txapelketa hasteko. Datorren barixakuan hasiko dute, abenduaren 12an, eta 19an amaituko da. Urtero Kultur Etxean jokatu izan dira partidak, baina aurten udaletzeko pleno aretoan jokatuko dituzte. Sari banaketa hilaren 19an egingo dute, 20:00etan, Udaletzeko pleno aretoan.

## Aurtengo ekintza-egutegia

Txapelketa Euskal Herriko onenen artean dago, duen maila dela-eta. Euskal Xake Federazioak, Udal Kirol Patronatuak eta Zubi-Ondo Xake Elkarteak antolatzen dute. Mundu osoko xake jokalariek etorriko dira herrira; tartean, In-



didako hamalau urteko gazte bat. Bere mailako munduko txapelduna da.

## Ioar Urkiri Toledoko krosean txapeldun



Mintxeta atletismo taldeko 23 atleta Espainian lehiatu dira lehen aldiz, joan den asteburuan. Toledoko Espada Toledana krosean hartu dute parte. Maila guzietan aritu dira Elgoibarko taldekoak, eta Ioar Urkiri mutrikuarrak lehen postua eskuratu zuen nesken 1.115 metroko saioan.

## Kirol ekipamenduak eman dizkiote Miskiri

Sanlo eskubaloi taldeak Miski elkarteari kirol ekipamendua eman dio. "Urteotan babeslea aldatu dugu, eta zaharkituta geratutako arropak eman dizkiogu elkarteari", azaldu dute Sanlokoek. Elkartearen sortzaile Gemma Agirregomezkortak jaso zuen kirol ekipamendua, eta Peruko umeei bidaliko dizkie.



## EMAITZAK

### FUTBOLA

Elgoibar **3** – Gernika **4** (Haundi)  
Zestoa **3** – Elgoibar **1** (1. erreg.)  
Aretxabaleta **3** – Elgoibar **3** (Jub.)  
Zumaiaiko **1** – Elgoibar **0** (Kad.)  
Eibartarrak **0** – Elgoibar **7** (Inf.)  
Elgoibar **0** – Bergara **0** (Tx.)  
Elgoibar **5** – Arizmendi **0** (Neskak f-8)  
Elgoibar **2** – Eibar **4** (Ale.)

### ARETO FUTBOLA

Laskorain **4** – Kenci Elg. **5** (Nazional B)

### ESKUBALOA

Tecnifuelle Elg. **18** – Kukullaga **22** (Jun. neska)  
Cometel Elg. **30** – Urdaibai **16** (Jub. neska)  
IMH Elgo. **37** – Urdaibai **20** (Kad. mut.)  
Ereintza **26** – Alcorta Elg. **26** (Jun. mut.)  
Pneumax Elgo. **30** – Bergara **28** (Kad. mut.)  
Zarautz **20** – Ikus Elg. **20** (Kad. neska)  
Aterpe Elgo. **30** – Aloña B **9** (Inf. neska)  
Lili Elg. **21** – Astigarraga Elg. **12** (Inf. neska)  
Arrasate **15** – Bankoa Elg. **21** (Inf. mut.)  
Txarriduna Elgo. **11** – Arrate A **29** (Inf. mut.)

## AGENDA

### ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 6

15:45 Kenci – Euskalduna (1. maila)

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 6

10:30 Elgoibar – Eibartarrak (Jub.)

12:30 Elgoibar – Hernani (Kad.)

16:30 Elgoibar – Soraluze (Neskak f-8)

### ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 6

10:00 Ikus Elg. – jauja Akilape (Kad.nesk.)

### ESKU PILOTA (Ikastolan)

Barxakua, 5

22:00 Arribillaga – Loiola / Kepa – Lizarralde (Senior)

**LANA**

**ESKAERA**

• Emakumea etxeko lanak egiteko prest. Goizez eta arratsaldez.

☎ 943 74 32 51

• Emakumea lanerako prest, plantxa egiteko edo etxeko lanak egiteko. Goiz edo arratsaldez.

☎ 627 799 609

• Mutila lanerako prest, zamalanetarako, garbiketa, igeltsertza edo edozertarako prest.

☎ 660 213 652

• Neska, nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Gauetz edo asteburuetan.

☎ 646 821 678

• Emakume euskalduna, nagusiak zaintzeko prest, esperientziarekin. Autoa dauka.

☎ 626 438 248

• Neska gaztea logela baten bila Elgoibarren.

☎ 943 743 505

• Neska euskalduna nagusiak edo umeak zainduko lituzke (esperientzia handia), garbiketa lanak egingo lituzke. ☎ 676 876 408

• Andre euskaldun bat esperientzia handiarekin prest pertsona nagusiak zaintzeko.

☎ 943 744 433

• Jatexerako sukaldaria behar da. Esperientzia.

☎ 943 741 230

• Neska lanerako prest, sukalde laguntzaile edo garbiketa lanak egiteko. ☎ 678 939 382

**ESKAITZA**

• DBH 3.mailako ikasle batek euskarazko klase partikularrak behar ditu, interesaturik dagoenak dei dezala.

☎ 687 734 656

**ETXEBIZITZA**

**ALOKAIRUA**

• Etxea alokatzen da Mendaron. ☎ 658 379 393

**LOKALAK**

• Garajea alokagai Mugerza pasealekuan, itxia edo irekia.

☎ 943 741 436

• Marradun garajea alokatzen da Leku Ederren

☎ 943 741 522

**MOTORRA**

• Salgai Nissan Terrano II 2,7 TDI Sport. Oso egoera onean dago. 2001eko abendukoa.

☎ 699 826 609 / 659 575 487

**BESTELAKOAK**

• Egongelako altzariak salgai. Egoera onean.

☎ 696 883 306

• Lur zati bat saltzen da. Azkaratetik Azkoitira bidean, pista ondo inguratutakoa, bi hektarea ingurukoa.

☎ 671 977 171

**ABISUAK**

• Joan zen larunbat eguerdian Urbitarten 2 erroberentzako patinetea utzi genuen ahaztuta. Norbaitek aurki-

tu badu, eskertuko genuke telefono honetara deitzea edo udaltzaingoa uztea. ☎ 619 793 653

• Giltza batzuk aurkitu ziren igandean Urasandin, Cristaleria Elgoibarresa inguruan. Giltzak udaltzaingoa daude.

• Azaroaren 7an, ostirala, magia ikuskizunaren ondoren, norbaitek bere txamarra hartu beharrean, nahi gabe Ludotekatik beste ume batena hartu zuen. Txamarrak berdina dira; euritako beltz luzeak eta txanoan ilearekin. Ludotekan gelditu dena 9-10 tamainakoa da eta eramandakoa 5 tamainakoa. Ludotekan bertan trukea egitea edo telefono zenbakira deitzea eskertuko genuke. ☎ 699 843 269 / 943 748 883 (Ludoteka)

**OHARRA**

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04



## SANTA LUZIA MENU

**ZIZKA-MIZKAK**

- Iberiko taula
- Itsaski salpikoia
- Askotariko frijituak

**BIBAZKEN PLATERA (aukeratzeko)**

- Legatza panadera erara
- Zapoia plantxan
- Txipiroiak tintan edo plantxan
- Txahal saiheskia
- Txahal txuleta
- Txahal masaila

**ETXEKO POSTREAK**

**URTEKO ARZOA, SABARROA,...**

**PREZIOA: 25€ BEZa BARNE**



• Zorionak, **Nahia!** Zenbat urte beteko ditu Bilboko tenista eta trikitilari onenak? Zortzi?! Aitxixa-amama, Maite eta tio.



• Zorionak, **Julen**, hilaren 4an lau urte egin zenituelako. Etxeko guztien partez, zorionak, gure artista!



• Zorionak, **Nora!** Aita eta amaren partez. Muxu handi bat zure bosgarren urtebetzean.



• Zorionak, **Nerea**, abenduaren 10ean zazpi urte egingo dituzulako. Egun zoriontsua pasa! Etxekoen partez.



• Zorionak, **Jon**, martitzenean bederatzi urte egin zenituelako. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Cristina**, abenduaren 6an bederatzi urte egingo dituzulako. Muxu handi bat etxekoen partez.



• Zorionak, **Jakes**, datorren martitzenean bi urte egingo dituzulako. Muxu handi bat etxekoen partez.



• Zorionak, **Iker**, eguaztenean bederatzi urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Ibai Barrutia Sanchez**, hilaren 3an urtebete egin zenuelako. Zure izeben partez.



• Zorionak, **Ifigo Armendia**, abenduaren 3an hamar urte egin zenituelako. Familiakoen, bereziki, Noraren partez.



• Zorionak, **Ibon**, bihar hamar urte egingo dituzulako. Muxu handi bat etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Mayte**, ONCEkoen partez, kupoi saltzaile berriari! Baita ere, guraso, senar eta semearen partez. Muxu bat.

## OSPAKIZUNAK URREZKO EZTEIAK



Aurten urrezko ezteiak egin dituzten bikoteak omendu zituzten joan zen astean Jubilatuen Egoitzan. Lore sorta eta oroigarria jaso zituzten 11 bikote elgoibartarrek. Ondoren bazkaria egin zuten.

## OHARRA

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu BARREneko bulegora edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali. Tel.: 943 744 112

## OKINDEGIA

6 zapatua **FOTERO**  
7 domeka **IBARRENEA**  
8 astelehena **BOLINTXO**

## FARMAZIAK

### 24 ORDUZ

5 Zabaleta  
6 Etxeberria (*Errosario*)  
7 Etxeberria (*Errosario*)  
8 Fernandez  
9 Garitaonandia  
10 Etxeberria (*Santa Ana*)  
11 Fernandez  
12 Yudego

### Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)  
Tel: 943 75 16 38

### Fernandez

Herriko enparantza 4,  
Garagarza (MENDARO)  
Tel: 943 75 61 42

### Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)  
Tel: 943 75 13 84

## INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik

[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)



## hitzaldiak

### 11 eguena

19:30 Euskal paisaiak eta euskal herritarrak

Ander Izagirrek ikus-entzuzko emanaldia eskainiko du Kultur Etxeko hitzaldi gela.

Antolatzaileak: Kutxaren Gizarte Ekintza eta AEK.

## kirolak

### 12 barixakua

13:00 Nazioarteko Xake txapelketa

Txapelketaren aurkezpena Udaletxeko pleno aretoan. Saioak 16:00etatik aurrera jokatu dira, eta sari banaketa hilaren 19an egingo da.

## antzerkia

### 11 eguena

17:00 'Zuk-zuk jaunaren alfabetoa'

Kutxaren Gizarte Ekintzak antolatuta, Irrintzi produkzioak aurkeztuko du ikuskizuna. Udal Liburutegian.

### 12 barixakua

22:15 'Cincuentones'

Julio Perugorria producciones taldeak aurkeztuta, Herriko Antzokian.

## LUDOTEKAKO EKINTZAK



Abenduak 13, zapatua gurasoeekin artzainen mundua ezagutzeko irteera. Goizean Ataungo artegi batera eta arratsaldean Idiazabal gaztaren museora.

Izena emateko epea: **ABENDUAK 9**  
Tokirik balego, bazkide ez direnak ere irteeran parte hartu dezakete.

**Informazio guztia Ludotekan jaso dezakete:**  
943 748 883 edo [ludoteka@elgoibar.org](mailto:ludoteka@elgoibar.org)

## GAZTELEKUKO EKINTZAK



**Martitzenero,**  
**GABON ZAHAR**  
FERIAKO POSTUAN  
saltzeko eskulanak:  
**txapak, brotxeak,**  
**mobil-zorroak...**

17:00etatik 20:00etara

### «Quemar despues de leer»

5, barixakua: 22:15  
6, zapatua: 19:00/22:15  
7, domeka: 19:00  
8, astelehena: 21:30

### «La isla de Nim» (umeentzako)

7, domeka: 16:30

### «Nevando voy» (Ongarri zine-kluba)

11, eguena: 21:30



## ABENDUA BERTSOTAN

### 12 *barixakua*

22:00 'Ornitorrinkus'

Maialen Lujanbio, Judith Montero eta Xabi Erkiziak musika garaikidea eta bertsoa uzartuko dituzte. Kultur Etxeko sotoan.

### 19 *barixakua*

21:30 Afari-jaia

Elgoibar bertsoan! Joxe Ar-maitxa, Angel Ugarteburu, Ger-man Meabebasterretxea, Ja-bier Ziarda, Uxue Alberdi... Izena emateko azken eguna abenduak 12. (943 741 626)

### 17 *eguztana*

19:00 Mahaingurua

Bertsolaritza Elgoibarren: orai-na eta etorkizuna. Partaideak: Angel Ugarteburu, German Meabebasterretxea eta Uxue Alberdi. Moderatzailea, Irati Agirreazaldegia. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

### 26 *barixakua*

22:30 Bertso saioa

25. urteurreneko bertso jaial-dia, Xabier Amuriza, Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi eta Be-ñat Gaztelumendirekin. Herriko Antzokian. Antolatzailea: Elgoibarko Izzar-rak Laguntzaileak: Udala eta Foru Aldundia.



## Gure gomendioa

### 'Ornitorrinkus'

Abenduak 12, barixakua, 22:00etan Kultur Etxeko sotoan Maialen Lujanbiok, Judith Monterok eta Xabier Erki-ziak eskainiko dute 'Ornitorrinkus' ikuskizuna dato-rran barixakuan, abenduak 12, gaueko 22:00etan Kultur Etxeko sotoan. Bakoitzak beretik jarriko du; bertsoa, saxoa eta musika esperimental. Elgoibarko Izzarrak antolatzen duen Gabonetako bertso jaialdiak 25 urte egingo ditu aurren, eta egitarau horren baitan antolatutako ekitaldia da.



LA BODEGA  
ERRETEGIA

Pedro Muguruza, 22  
Tel.: 943 742 500  
943 744 008  
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

COGORARAZTEN DA  
ERRETEGI HONEK  
BETIKO EGUNEKO MENUA,  
BOST MENU BEREZIAK  
ETA KARTA  
MANTETZEN DITUELA  
SANTA LUZIA  
EGUNERAKO



**klinika kortazar**

Oftalmologia pediatrikoa

Gidabaimenak eta armabaimenak

Errebal, 14 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)  
Te. 943 700 700 / 943 203 835

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a



**Idama**



Azaroako irabazlea:  
**CAROLINA  
IGLESIAS**

Abenduko saria:  
**HIRU  
HIDRATAZIO-  
ORRAZKETA**

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)  
Tel.: 943 74 40 26

## Argazkiak

# Futbolin eta ping pong txapelketa

*Ping pongeko txapeldunak.*



Gaztetxean ping pong eta futbolin txapelketa jokatu zuten orain dela aste bi eta hona hemen argazkiak. Bestalde, abenduaren 13an gaztetxe eguna izango da, honako egitarauarekin: bertso-trikipoteoa, jolasak, kantababajana (txartelak 5 euroan, Txuri-Beltz, Lanbroa, Iratxo eta Toletxen) eta kontzertuak (The Last, Strength, Kruders, Red District eta Strikers). Indarberrituta dator gaztetxea!!!

*Futbolineko txapeldunak.*





# OSASUN GIDA



## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

### *Kemen Belardenda*

#### **Berria!!! Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.**

("Dieta erraza" mehetzeko tratamendua...

Bach loreak, P.N.L., makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak).

San Bartolome, 25

Tel: 943 744 031

Egunero: 9:00-13:00

16:30-20:00

### **Sanatana Dharma Yoga Elkarte**

Urasandi, 9

Tel: 943 748 593 (Idoia)

685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/

18-19:30/20-21:30

*Mendaro*

Astelehen eta asteazkenetan:

10-11:30/15-16:30

Astearte eta ostegunetan: 20:00-21:30

## FISIOTERAPIA

### **Ainhoa Fisioterapia**

Eragozpen fisikorik egongo balitz, etxez etxeko zerbitzua eskainiko litzateke.

Tel. 943 531 953

669 565 745

Goiz eta arratsaldez

Jausoro, 6 behea

## OPTIKAK

### **Ikus optiko-optometrista**

San Bartolome, 10

Tel: 943 743 734

Egunero: 9:30-13:00

16:30-20:00

### **Uzuri**

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21

Tel: 943 740 359

Egunero: 9:30-13:00

16:30-20:00

## ORTOPEDIAK

### **Itziar Sarasketa**

San Frantzisko, 12

Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00

17:00-20:00

## MASAJISTAK

### **Victoria Iraegi**

(Esku- terapiak: kiropraxia, dranatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea.) San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea)

Tel.: 943 740 770

Astelehenetik Ostiralera

8:00 - 14:00

## HORTZ KLINIKAK

### **Irale**

Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar)

Tel: 943 743 679

Zeharkalea, 8 behea (Ermua)

Tel: 943 177 134

[irale@irale.com](mailto:irale@irale.com)

[www.irale.com](http://www.irale.com)

### **Leku eder**

Elena Herrero Lobo

Aita Agirre enparantza, 5 behea

Tel: 943 530 053

[lekueder@infomed.es](mailto:lekueder@infomed.es)

## PODOLOGOAK

### **Oinberri**

Errosario kalea, 25

Tel: 943 741 795

Astelehenetik ostiralera: 9:00-13:30

15:00-19:30

### **Iñigo Arrillaga Yudego**

- Hanken afekzioen terapia.

- Neurrira egindako plantilak.

- Hanka diabetikoen zainketa.

- Ordenagailuaren bidezko hankaren azterketa.

San Frantzisko kalea, 20 behea

Tel: 943 741 645

Ordutegia: 9:30-13:30

15:30-19:30





# Gremioen

# GIDA



## Aroztegiak

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 16  
☎ 943 74 31 16

### García

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
☎ 943 74 32 38

### Imar

Aroztegia  
☎ 943 53 14 71  
☎ 646 90 55 64  
☎ 609 05 49 78

### Lodoso Leihoak

Sigmako Industrialdea  
Xixillon 2-2. pabiloia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90  
Faxa: 943 74 73 12  
www.fjlodoso.euskalnet.net

### Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Indusketa lanak

### Lekunberri Indusketak

Indusketa eta indusketa txikiak  
Lekunberri baserria  
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32  
koldo@movistar.es  
www.excavacioneslekunberri.com



## Lorezaintza

### Pagoa loradenda

Nafarroa plaza 1  
☎ 943 74 01 89  
☎ 688 631 307



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

Ermuaran Bide, 11  
☎ 943 53 18 47  
☎ 647 463 436 (Floren)

### Javi

Erretxindi, 1 behea  
☎ 659 772 932

### Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia  
☎ 943 74 28 80

### Pagoaga

San Antolin, 13  
☎ 943 74 02 79

### Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 • MENDARO  
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

### Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17  
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05  
Faxa: 943 53 18 25

### Zubizarreta Instalazioak

Ubitarte, 5 behea  
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



## Igeltseritza

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04



## Autoentzako tindatutako kristalak

### Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabiloia  
☎ 943 74 30 94



## Proiektu eta erreformak

### Estudios Arrillaga

Errosarlo, 15 behea (Elgolbar)  
☎ 943 744 055/943 744 019  
Arragueta, 12 behea (Eibar)  
☎ 943 200 698



## Elektrizitatea

### Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza  
Morkalko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
MENDARO  
☎ 659 934 964

### Urzelai

Santa Ana, 12-14  
☎ 943 74 13 76



## Pinturak

### Blok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20

### Ipintza

Foruen enparantza, 4  
☎ 943 74 04 40  
☎ 607 74 04 40

### Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea  
☎ 943 74 88 43  
☎ 660 52 25 87

### Desigual

San Inazio, 5 behea  
☎ 943 748 925  
☎ 677 846 069  
Faxa: 943 531 502  
pinturasdesigual@hotmail.es